# ALDA

Aldaketa. Lana. Demokrazia. Alternatibak

*Si tú cambias, el mundo cambia*

noviembre-diciembre 2019ko azaroa-abendua • 9. zkia.

ELA EUSKAL SINDIKATUA



Onintza Enbeita eta Andoni Egaña

# Euskararen metrika gozamenaren neurrira

ANOETA: GOLA IRUZURRARI ETA PREKARIETATEARI

>18. ORR

SALONES DE JUEGO Y CASAS DE APUESTAS: ¿LA HEROÍNA DEL SIGLO XXI?

>PÁG 8

LA CORRUPCIÓN TAMBIÉN CHAPOTEA EN EL OASIS VASCO

>PÁG 40




## 24

ERREPORTAJEA

**30 enero, huelga general por las pensiones, y un trabajo y una vida digna**





## 42

ELKARRIZKETA

Andoni Egaña eta Onintza Enbeita

**Euskararen metrika gozamenaren neurrira**

## 8

ERREPORTAJEA

**Salones y casas de apuestas: ¿la heroína del siglo XXI?**

## 40

GAIA

**La corrupción también chapotea en el oasis vasco**



ALDAKo ahotsa | Editoriala ........ 03
Mitxel Lakuntza ........ 04
Jule Goikoetxea ........ 06
Salones de juego y apuestas ........ 08
Errigora Elkartea ........ 12
ErALDAtzen ........ 16
Fraude en Anoeta ........ 18
ALDAKo irakurleak ........ 23
Greba Orokorra ........ 24
Mikel Noval ........ 26
Andoni Egaña eta Onintza Enbeita ........ 30
Corrupción en Euskal Herria ........ 40
KulturALDA ........ 46
ALDAko Hiztegia:
Soldata Arrakala ........ 47
PostALDA ........ 48

**ERREDAKZIO TALDEA**

*Zuzendaritza:* Iván Giménez eta Nagore Uriarte.
*Koordinazioa:* Nerea Ispizua.
*Lantaldea:* Gorka Quevedo, Gabriel Zeberio, Lander Zabaleta, Davide Cabaleiro eta Bixen Fernández Amezaga.
*Argazkiak:* ALDA eta Foku.
*Ilustrazioa:* IratINK.
*Argitaratzle:* ELA, Euskal Sindikatua.
Barrainkua 13, Bilbao. 944 03 77 00.
**www.ela.eus/alda** • alda@ela.eus
*Lege-gordailua:* BI-425-2018
*Ale kopurua:* 102.100

ELA
EUSKAL SINDIKATUA

# Urtarrilaren 30ean, greba orokorra

Hego Euskal Herriko pentsiodunen mugimenduak bi urte daramatza pentsio duinen alde astero mobilizatzen. Momentu jakin batean, pentsiodunen eremutik haratago *planto* egiteko beharra plazaratu zuen.

Duela sei urte, sindikatu eta eragile sozial ugarik euskal herritarren eskubide sozialak biltzen dituen Karta osatu genuen prozesu partehartzaile baten bidez, eta eskubide horien aldeko ekimenak antolatu ditugu ordutik. Kartak bat egiten du pentsiodunen mugimenduak egin duen planteamenduarekin.

Egoera ikusita, beharrezkoa ikusten dugu lan baldintzak, pentsio eta bizitza duinaren aldeko borrokan jauzi bat ematea. Konbentzimendu hirukoitzak batu gaitu: batetik, pentsioak denon afera dira, oraingo pentsiodunena zein etorkizunekoena; bestetik, lan baldintza duinen aldeko borroka ezinbestekoa da; eta azkenik, eskubide sozialak bermatu behar dira.

Finean, bestelako eredu sozio-produktiboa eraiki nahi dugu, bizitza erdigunean jartzeko, zaintza eta planetaren jasangarritasunari lehentasuna emanez. Eredu honen ardatz nagusiak hauek dira: aberastasunaren birbanaketa; sektore publikoaren lidergoa; eskubideen unibertsaltasuna; jendartearen beharren arabera antolaturiko lurraldeen arteko oreka (lehenengo sektorea, azpiegiturak, merkantzien eta garraio sektorea,…).

Gainera, benetako neurri zehatzak hartu behar dira lan prekaritatearen aurka, besteak beste, lanaldia murriztea (astero 35 ordu) eta gutxieneko soldata 1.200 eurotan finkatzea; soldata arrakala ezabatu behar da eta azpikontraten langileen enplegua bermatu behar da.

Lantokitik harago, gaur urratuta dauden eskubide sozialak defendatu behar ditugu: etxebizitza edo zerbitzu sozial publiko, doakoak eta unibersalak bermatu behar dira. Bizitza erdigunean jartzeak ezinbestean ekarri behar du zaintza lanak ikustaraztea eta duintzea. Murrizketen bidez azken urteetan kendu digutena berreskuratzeko ordua iritsi da.

Honela bada, krisiaren aitzakian azken hamarkadetan azkartu den lan eta bizi baldintzen prekarizazioari muga jarri, eta lan baldintzak, pentsio eta bizitza duinak bermatuko dituzten neurrien aldeko mobilizazio dinamika abiatzea erabaki dugu.

Eta mobilizazio prozesu honen baitan, Euskal Herrian greba orokorra deitzea erabaki dugu Karta Sozialean.

Gauzak horrela, urtarrilaren 30ean, denok kalera!

**Os recordamos que Landeia se ha reconvertido en una revista bimestral dirigida a la acción sindical que, en principio, está concebida para ser enviada a los delegados y delegadas. Si no lo eres y quieres seguir recibiéndola en papel, solicítala en: ELA, Komunikazio bulegoa. Barrainkua 13, Bilbao o Landeia@ela.eus. Por otra parte, en nuestra web: www.ela.eus podrás descargarte la versión digital de ambas publicaciones, tanto ALDA como Landeia.**



Istorio hau ezin da amaitu berzentralizazioa eta errepresioa nagusituta. Errealitateari aurre egin eta borrokatu beharra daukagu... jakinik zailtasunak hor direla, baina baita aukerak ere. Nazio garen aldetik lorpenak baditugu, baina aspaldian galtzen goaz, eta irabazteko asko dago.

**Mitxel Lakuntza,** secretario general de ELA

# Estatuto: 40 años sin romper con la ficción

En 1997, en Gernika, nuestro sindicato hizo una reflexión política muy compartida (no sólo dentro de ELA): "El estatuto ha muerto. Lo que fue una oportunidad se ha convertido en una trampa. Muy débiles, muy divididos, muy despistados y muy acomplejados nos tienen que ver los españoles centralistas para atreverse a derogar de facto el Estatuto y quedarse tan campantes. Tenemos que sumar, tenemos que incorporar a todos aquellos demócratas que aceptan que la soberanía, que el derecho a decidir nuestro futuro como pueblo, corresponde a los ciudadanos y ciudadanas vascas".

El Estatuto fue recibido como una oportunidad. El estatutismo formaba parte de la cultura de ELA. Pero la mutilación del autogobierno nos hizo replantearnos nuestro horizonte estratégico. Y esa involución que denunciamos hace dos décadas ha crecido en los últimos años.

El Gobierno español ha persistido en la recentralización, tanto ejecutivos socialistas como populares. Mantienen la negativa a transferir competencias reconocidas como exclusivas en el Estatuto. El Estado ha limitado, además, las competencias en ejercicio y ha invadido nuestras competencias. Los recursos contra actuaciones de las administraciones vascas, leyes incluidas, se han convertido en una práctica habitual, lo que ha judicializado hasta el extremo la actividad política.

El autogobierno se ha erosionado, igualmente, a través de decisiones pactadas con nuestras instituciones, como la regla de gasto, para imponer recortes y medidas antisociales. Por lo demás, el Estatuto adolece desde su origen de limitaciones de especial interés para la clase trabajadora y el sindicalismo, como son la legislación laboral y la seguridad social.

Por tanto, el Estatuto hoy necesita más un examen forense que una celebración.

## OCULTAR LA REALIDAD Y ALIMENTAR LA FICCIÓN DE LA BILATERALIDAD PARA NO AFRONTAR EL PULSO POLÍTICO

Conocemos nuestra pequeña correlación de fuerzas como nación, algo no solo achacable, ni mucho menos, al papel de nuestras instituciones, pero no compartimos que los dirigentes políticos estén ocultando la erosión imparable del autogobierno; han decidido no mantener un

Diagnostiko honekin bat gatozenok elkarrekin lan egin beharko genuke, gure espazioa zabaldu, bidea ireki eta soberania beharrarekin batera pobreziaren eta prekaritatearen drama gero eta larriagoari aurre egin; klase herrikoiak erakarriko baditu, hori behar-beharrezko osagaia da; ezkerreko aliantzei lehentasuna eman behar diegu.

Istorio hau ezin da amaitu berzentralizazioa eta errepresioa nagusituta. Errealitateari aurre egin eta borrokatu beharra daukagu, jakinik zailtasunak hor direla, baina baita aukerak ere. Nazio garen aldetik lorpenak baditugu, baina aspaldian galtzen goaz, eta irabazteko asko dago. Jo dezagun bide horretatik; eta hasteko, egia konta dezagun.

pulso con las fuerzas estatales, no ya en defensa del derecho a decidir, sino en defensa del propio Estatuto y sus competencias; y están defendiendo una ficción: la bilateralidad con el Estado.

Ocultar la erosión, no mantener el pulso y hablar de una bilateralidad que no existe no es coherente. El ocultamiento y la ausencia de pulso tienen un objetivo: no cambiar de políticas y no cambiar de aliados.

## EL INTENTO DE RESURRECCIÓN ESTATUTISTA

Dicho de otra manera, la restauración estatutista liderada por el lehendakari Urkullu tiene un triple objeto: garantizar la permanencia de las políticas neoliberales pactadas con el Estado, no polemizar por nuestra creciente subordinación política, cultural y lingüística, y blindar las alianzas con el PSOE.

Urkullu ha manifestado en más de una ocasión que, a su entender, el gran error de Ibarretxe fue romper los puentes con el PSOE. Esta posición, obviamente, es del todo legítima, pero debería reconocer que nunca accederemos al derecho a decidir ni a verdaderas políticas progresistas de la mano de ese partido.

Tomando en cuenta las alianzas del gobierno de Urkullu y su apuesta por no confrontar ante el ataque continuado al Estatuto, lo natural es desconfiar del texto que vaya a presentar la comisión de juristas sobre un proyecto de Estatuto. Para el PNV, posiblemente el nuevo estatuto sea un artefacto de distracción política más que un intento real y sincero por abrir un nuevo escenario. No es posible conciliar un marco de garantías basado en la soberanía con un Estado autoritario y uniformizador y con esos partidos como actores principales.

Los aniversarios invitan a la reflexión. Cuando coinciden con cuestionamientos profundos del statu quo, como el que se vive en Cataluña, esa reflexión se vuelve más urgente. La sentencia catalana demuestra el nulo interés en abordar políticamente ese debate. Dentro del consenso del 78 no hay márgenes más allá del ataque a derechos fundamentales y de la recentralización progresiva. Las fuerzas soberanistas estamos obligadas a pasar a limpio lo que ha sucedido, porque no se puede seguir como si no pasase nada. La respuesta del Lehendakari ante la gravedad de lo acontecido, limitándose a meditar o a ofrecerse como mediador es decepcionante. No se puede dar normalidad a la excepcionalidad de la política española.

## PRIORIZAR LAS ALIANZAS DE IZQUIERDA

Quienes compartimos este diagnóstico deberíamos ser capaces de trabajar en común, ganar espacio, abrir camino y priorizar las alianzas que nos permitan vincular la necesidad de soberanía afrontando el drama creciente de la pobreza y la precariedad en nuestro país; y también como componente indispensable de un proceso soberanista que quiere sumar a las clases populares. Debemos priorizar las alianzas de izquierda.

La recentralización y la represión no pueden tener la última palabra. Hay que afrontar la realidad y luchar. Conscientes de las dificultades pero también de las oportunidades. No hemos logrado poco como nación, pero hace mucho que vamos perdiendo, y tenemos todo por ganar. Empecemos a hacer camino, empecemos por contar la verdad. A





**Jule Goikoetxea,** "Privatizar la democracia" ikerketaren egilea

# Euskal demokrazia patriarkala

> La diferencia entre hombres y mujeres es de poder, no de cromosomas ni hormonas. Las mujeres no gobiernan. Y si las mujeres no pueden gobernar su cuerpo, su comunidad, o su pueblo, entonces, ese pueblo no es una democracia, sino un patriarcado.

Euskal demokrazia patriarkalaren inguruan egin dugun ikerketak bi helburu nagusi ditu: lehenik gure egungo patriarkatua dimentsio ezberdinetan destolestu, ordenatu, egituratu; eta, bigarrenik, patriarkatuaren birsortze mekanismoak identifikatu. Horretarako, patriarkatuaren lau dimentsio aztertu ditugu: erlazio patriarkalak lan ordainduan, lan ez ordainduan, estatuan (kasu honetan, ongizate erregimenean) eta eremu sozio-politiko publikoan. Horrekin batera, beste maila batean dagoen dimentsio analitiko bat barneratu dugu: biolentzia sinbolikoarena, hau da, biolentzia moduan antzematen ez den biolentzia, pentsamendu kategoria negatiboen bidez egituratzen den biolentzia.

Patriarkatuaren dimentsio guztiek dituzte beste dimentsioak barne, errealitatean batera joan ohi dira, hau da, lan ordainduan ematen den menderakuntza patriarkala ezin da ulertu lan ez ordainduan ematen dena kontuan hartu gabe, baina lan ez ordainduan gertatzen dena ulertzeko biolentzia sinbolikoa zer den ulertu behar da: nola funtzionatzen duen eta zer nolako ondorioak dituen beste ardatzetan, tartean, biolentzia zuzenean; ezin baita ulertu gizonen biolentzia zuzena emakumeen kontra, emakume izateagatik, ez bada emakumeen sozializazioa biolentzia sinboliko patriarkalaren bidez aztertzen. Biolentzia materialak kapital ekonomikoarekin du zerikusia, baina, berriro ere, kapital ekonomikoaren metaketaren oinarri sozial jasangarria, biolentzia sinbolikoa da eta *sinbolikoa* hitzak materiaren dimentsio semiotikoa esan nahi du.

Aldi berean, eremu horietan ematen den menderakuntza patriarkala ezin da ulertu erakunde publikoen eta estatuaren egituraketa sexista ulertu gabe, gizarte misogino batean oinarritzen delarik egituraketa hori.

Estatuaren dimentsioa oso zabala da (perspektiba estrategiko-erlazionala), nahiz eta gu ongizate erregimenean zentratu, gure herrian dugun familiarizazioa neurtu nahi izan dugulako, merkantilizazio mailarekin batera. Familiarizazioak emakumeek bizirauteko eta ongizatea lortzeko gizonen baliabideekiko duten dependentzia neurtzen du, eta merkantilizazioak bizirauteko merkatuarekiko dugun dependentzia. Gure ondorioa argia da hirugarren dimentsio honetan: gure ongizate erregimena mediterranearra da, hau da, merkantilizazio maila handia (atzetik bakarrik erregimen liberalak ditugu, Erresuma Batua edo Ameriketako Estatu Batuak) eta familiaziarizazio maila oso handia, erregimen guztien artean handiena, Espainiaren berbera, alegia. EAEko patriarkatu liberala ezaugarritzeko, Europako beste herrialde eta ongizate erregimenekin alderatuko dugu, eta merkantilizazio eta familiarizazio maila altua dugu, pribatizazio neoliberalaren pean bizi garelako, eta erakunde publikoak neoliberalismoa bezain patriarkalak direlako.

Hemos querido ordenar y estructurar analíticamente el patriarcado neoliberal, y para ello hemos analizado cuatro dimensiones: la dominación patriarcal en el trabajo remunerado, en el trabajo no remunerado, en el estado y en el ámbito socio-político público. Hemos analizado los mecanismos que reproducen el patriracado actual, y una de las conclusiones es que la diferencia entre hombres y mujeres es una diferencia de poder; las mujeres tenemos menos capital económico, social, cultural y simbólico y, en cambio, trabajamos mucho más que los hombres.

Erakunde publikoak dira familiarizazio maila baldintzatzen dutenak, nagusiki, erakunde publikoak direlako (izatekotan) emakumeek musutruk egiten duten edo egin izan duten lana bere gain hartu dutenak, hala nola, erresidentzia publikoekin, haurtzaindegi eta eguneko zentro publikoen bidez, hau da, hezkuntza eta zaintza, bere zentzu zabalenean, publifikatu dutenak eta emakumeek doanik egiten duten lan hori ordaindu izan dutenak (gutxi eta gaizki bada ere).

Beste ondorioetako bat da, gure gizarte neoliberaletan lan ordainduak bakarrik sortzen duela kapital ekonomiko, sozial, kultural eta sinbolikoa. Horregatik, nahiz eta emakumeek gizonek baino 400 ordu gehiago egin lan urtean, haiek baino kapital ekonomiko (soldata, errenta, pentsioak), kapital sozial, kultural eta sinboliko (autoritatea, prestigioa, balioa) gutxiago dugu. Horrek erakusten du emakume eta gizonen arteko diferentzia botere diferentzia dela, eta esplotazio maila eta modua.

**LAU PROPOSAMEN**

Menderakuntza patriarkal honekin amaitzeko, ezinbestekoa da kapitalismo neoliberal, arrazista eta kolonialistarekin amaitzea, eta horretarako lau proposamen ekarri ditut hona:

**1. Estatugintza feminista.** Boterea, eta beraz, kapitalen produkzioa eta banaketa lurraldeka konstituzionalizatzea proposatzen dugu, prozesu konstituziogile feministen bidez. Lurralde bakoitzaren barruan, subsiedarietate politikoa aplikatuko da eta erakunde txikienak boteretu, herritarrengandik gertuen dauden guneen eskumenak eta gaitasun politikoak handituz auzo sindikatu eta antolakundeen bidez. Horrek esan nahi du, udalen azpitik gobernu maila berri bat barneratuko genukeela herritarren antolakuntza auzoetatik egitea ezinbestekoa baita. Arazoa ez da lana versus kapitala, baizik eta kapitala versus bizitza, eta bizitza ematen den leku guztietan egituratu behar da kapitalismo patriarkalaren kontrako borroka.

**2. Derrigorrezko zaintza lana eta lan ororen desmerkantilizazioa eta desfamiliarizazioa.** Zaintza derrigorrezkoa eta txandakakoa izango da, guztiok zainduko dugu eta erakunde publikoek bizitza osoan zehar behar dugun zaintza eta tratamendu espezifikoak bermatu beharko dituzte. Egindako lana, ordaindua eta ez ordaindua, era berean banatuko da: banakako guztiek lan ordaindu eta ez ordaindu antzekoa egingo dute (ezin da lan ordainduan emandako denbora lan ez ordaindutik kendu) hauen arteko zatiketa desagertu arte desmerkantilizazioaren eta desfamiliarizazioaren bidez. Horrek ebaluaketa jarraia beharko du, ez dadin merkantilizazioa izan kapital sozial, ekonomiko eta sinbolikoaren iturri, eta lan desberdinen kategorizazioa aldatze aldera nahiz lan horiek sortzen dituzten kapital ezberdinen banaketa bidezkoagoa ziurtatze aldera.

**3. Konsozianismo feminista.** Erabakigune oro konsoziatua izango da. Erabakigune politiko eta erakundetu guztietan gizon bakoitzeko emakume bat egongo da (langile klasekoak beti ere), despatriarkalizazio prozesuak abiadura hartu eta emakume eta gizonak, klase sozio-politiko eta ekonomiko bezala ulertuak, desagertu arte. Gobernuko sail guztiek ez ezik, boteregune guztiek (sindikatu, alderdi, mugimendu, enpresa, etab) sailburu/zuzendaritza bikoitza izango dute, eta kasuan kasu, batzorde hirukoitz/anizkoitz lotesleak egongo dira (adin, jatorri, aniztasun sexual, funtzional etab. kontuan hartuz). Horrek lagunduko du, gerora, parte hartze politiko ezberdinen nolakotasuna aldatzen, ez baita nahikoa emakumeen presentzia baizik eta joko erregela (espazio, gune, baliabide, xede, arau, legedi, konstituzio) feministak martxan jartzea.

**4. Beto gaitasuna eta erabakimena emakumeen gune autonomo eta ez mistoetarako.** Orain gizonek (eremu guztietan) eta patronalak (eremu zehatzetan) duten beto gaitasuna demokratizatuko da, emakumeei eta langileei emanez. Horretarako emakumeen gune ez mistoak sortuko dira elkarte eta antolakunde misto guztietan: alderdi, sindikatu, eskola, unibertsitate, lantoki eta elkarte publiko eta pribatuetan. Egungo legebiltzar liberal eta patriarkala iraultzeko helburuarekin, legebiltzar ez mistoa osatzea proposatzen da, eta mistoak ez diren batzorde ezberdinak, erabakimena berreskuratu dezaten emakumeek. Horretarako, lehen gobernu mailan, langilez osatutako auzo elkarte eta auzo sindikatuen legebiltzar eta batzarrak, eta gero eskala ezberdinetan antolatutako lurralde (lege) biltzarrak (auzoka, udalerrika, eskualdeka, lurraldeka, etab.) emakumeen betoa bermatuz eskala eta maila guztietan. Hori egin ezean emakumeek ezingo dute beren burua, beren gorputz indibidual eta kolektiboa eta beren herria gobernatu, eta bere burua gobernatu ezin duen herria ezin da demokrazia bat izan.

# Salones de juego y casas de apuestas:

# ¿La heroína del siglo XXI?

Pamplona, Azpeitia, Gasteiz, Bilbao... Surge un movimiento popular en contra de la proliferación de salones de juego y casas de apuestas deportivas por el peligro de adicción entre los más jóvenes y los sectores menos favorecidos

**NEREA ISPIZUA**

A lo largo de 2019, distintas localidades de Euskal Herria -Iruña, Azpeitia, Gasteiz, Bilbao...- han sido testigo de movilizaciones en contra de la proliferación de los salones de juego y casas de apuestas deportivas. Sus detractores entienden que estos negocios aumentan sin control, especialmente en los barrios más humildes, donde las personas precarizadas son las más vulnerables de caer en el juego al sufrir situaciones de necesidad económica. Preocupa también, y mucho, su ubicación cerca de colegios, institutos, bibliotecas y parques, y que no se vigile el acceso de los menores de edad a los mismos.

La patronal del juego privado (Cejuego) se defiende afirmando que "el juego es una actividad legal, regulada y normalizada", niega que haya un problema de acceso a menores en los salones y considera que "se está creando una alarma social irreal e innecesaria" en este tema. Lo cierto es que, según datos de la Federación de Asociaciones de Máquinas Recreativas, la CAPV es la comunidad con más gasto en apuestas deportivas en salones, seguida de Navarra, y la saturación es tal que apenas hay margen para abrir más locales de este tipo. Hay voces, incluso, que llegan a comparar la adicción creada por los salones de juego y las casas de apuestas a la de la heroína en los años 80.

**Un problema real**

**Javier Cuevas**, secretario de Aluviz (Asociación de ludópatas de Bizkaia) cree que hay motivos de sobra para estar preocupados."Si cogemos un mapa de Bilbao vemos que todos los centros escolares tienen en un radio de 100 metros algún salón de juegos o casa de apuestas. Lugares en los que los chavales entran sin ningún tipo de control, consumen algo a precios muy razonables, están viendo deportes a todas horas en grandes pantallas, son bombardeados por publicidad muy agresiva incitándoles a jugar e, incluso, reciben bonos gratuitos para hacerlo. Como tengan la mala suerte de ganar una vez, empieza el problema... porque van a seguir jugando. Y una parte de ellos no va a poder controlarlo y acabará en adicción".

La ubicación de los locales no es casual. Su situación suele ser estratégica: cerca de colegios, si el objetivo son los adolescentes; y barrios marginales, si es la juventud más precarizada e, incluso, excluida. "Encontramos salones de juego y casas de apuestas en Otxarkoaga, en Rekalde... En Deusto hay, pero van más




EITBk, Euskadiko irrati eta telebista publikoak, ez du apustu-etxerik izango bere iragarleen artean. Helburua da, batez ere, zaurgarritasun egoeran dauden pertsonen eskubideak zaintzea, jokoek eta apustuek sor ditzaketen menpekotasun-arrisku larrien aurrean babestea".

hacia San Ignacio, más obrero. Sin duda, sí buscan un determinado perfil de persona y de jugador".

A la ludopatía no se llega en un día. Es el resultado de un proceso, cuya velocidad se ha disparado ante las nuevas tecnologías aplicadas al juego. "Antes el proceso duraba entre 3 y 5 años. Ahora, con las apuestas deportivas y los juegos on line, a los que se tiene acceso las 24 horas los 365 días del año, en un año ya hay verdaderos ludópatas". La sobreexposición es otro problema. "El juego está por todas partes. En la CAPV estamos en los máximos permitidos. Hay 7.000 terminales de apuestas deportivas y hemos llegado al tope de locales de juego en las ciudades".

Esta nueva realidad ha contribuido, sin duda, a un cambio importante del perfil del ludópata. "Antes la edad media de las personas que se acercaban a nuestros locales oscilaba entre los 30 y 40 años. Ahora, ha bajado de los 20 a los 30. En el caso de los más jóvenes, eso supone que han llegado al juego siendo menores de edad". Baja la edad media y aumenta el número. "En una década prácticamente se ha duplicado el número de personas que se han acercado a nuestra asociación buscando ayuda. Y los más jóvenes son adictos a las apuestas deportivas, mayoritariamente".

Por la asociación pasan casos dramáticos. "Se rompen familias, se acumulan deudas tremendas, que han llevado a gente a perder sus casas... Recientemente, una madre llegaba desolada porque su hijo había aprovechado su ausencia durante un par de semanas para vender media casa...". Sin embargo, añade este ex-jugador, "todos ven las consecuencias del juego a nivel económico, pero no se ve el daño sicológico que sufre la persona con ludopatía, a la que no le importa nada ni nadie, ni siquiera le importa ganar o perder, sólo tiene una necesidad imperiosa de seguir jugando...".

Se calcula que un 4% de la población puede estar afectada por el juego patológico.

>>

Kirol munduak ere lagundu du kirol apustuak zuritzen. Futbol karruseletan, kirol prentsan eta baita jokalariek eurek ere jokatzea gomendatzen dute. Gainera apustu-etxeak Euskal Herriko taldeen babesleak dira, Realekoa ezik.




*Javier Cuevas, de Aluviz.*

**Publicidad agresiva**

Una de las estrategias utilizadas por estos negocios para atraer a potenciales jugadores es la publicidad. A todas horas, incluso en horarios de máxima audiencia, y con famosos, tanto del deporte como del cine o la televisión.
En opinión de Javier Cuevas, la decisión de EITB de prohibir publicidad de apuestas deportivas a partir del 1 de enero de 2020 es una muy buena noticia, que debería crear precedentes. “Lo mismo que está prohibida la publicidad del alcohol y el tabaco debería prohibirse la publicidad de las apuestas”.

Cuevas explica cómo ha habido una evolución en el tipo de reclamo utilizado. “Los operadores han cambiado la estrategia. Ahora apuestan más por los bonos-regalo. La primera ronda, a cuenta de la casa. Como la primera papelina…”

**La alternativa no es la ilegalización**

A pesar de que hay voces que apuestan por la ilegalización de este tipo de negocios por su efecto adictivo, “como las drogas”, Cuevas entiende que prohibir no es la solución. “Reivindicamos medidas de autoprotección a los que tenemos un problema de ludopatía, y control para proteger a los más jóvenes”, explica. “Una medida sencilla y muy efectiva para evitar el juego entre los menores sería poner validadoras que controlaran la edad de los jugadores y llevar las apuestas al fondo de los locales; esconderlas, de alguna manera, para evitar el efecto llamada”.

Javier, sin embargo, no es demasiado optimista a corto plazo. “El juego mueve muchísimo dinero: millones de euros. Para unos es un negocio redondo. Y para la Administración, que es quien tiene que velar por el bienestar de la sociedad, también”, advierte.

Por eso, considera muy positiva la movilización social que ha surgido contra los salones de juego y las casas de apuestas. “El problema va a más. Es muy importante que la sociedad tome conciencia y exija y presione a las Administraciones para que ponga límites a esta situación”, reivindica.

**Eragin: lectura de clase**

En línea con este pensamiento, hace unos meses, la organización juvenil Eragin, tras realizar un diagnóstico de la situación, llevó al pleno del Ayuntamiento de Bilbao una moción para prohibir los locales de apuestas cerca de colegios e institutos y la publicidad en espacios públicos. “En base a nuestra experiencia personal, nos dimos cuenta de que en los últimos años se habían disparado el número de salones de juego y casas de apuestas y cómo muchos de nuestros compañeros de instituto aprovechaban los recreos para ir a jugar a la ruleta o echar unas apuestas. Todos nosotros conocemos casos de chavales que se han ido enganchando, con las consecuencias económicas y personales que eso tiene. Y es que precisamente los jóvenes somos el objetivo claro de este tipo de negocios”, denuncian **Mikel Ruiz** y **Andrés Peña**.

Las respuesta del consistorio, aunque no por esperada fue menos frustrante. “Se lavaron las manos. De boca sí que dicen que es un problema pero, al final, quien gobierna está al servicio del poder y acaban haciendo lo que al negocio le conviene”, critican. “Esgrimen -continúan- que la normativa ha llegado tarde y que no tiene efecto retroactivo, pero eso no es justificación para que no busquen maneras para atajar una situación cuyas consecuencias terribles las estamos empezando a ver ya. Es curioso que no tengan problemas para cerrar Gaztetxes pero sí casas de apuestas…”.

Los miembros de Eragin inciden en la idea de los intereses económicos que hay detrás de ese dejar hacer a las casas de apuestas y salones de juego por parte de las Administraciones. “Reta y Kirolbet son dos empresas vascas bien situadas políticamente. Sin ir más

lejos, el año pasado la Diputación de Gipuzkoa premió a Kirolbet "por su apoyo, ayuda y promoción al deporte vasco". Es decir, las instituciones no solo no combaten estos negocios sino que los premian".

**Sanciones ridículas**

Varias de las propuestas planteadas por Eragin buscan proteger a los menores de edad. En ese sentido -al igual que Aluviz- exigen controles exhaustivos para que no puedan acceder a este tipo de locales, ya que la cifra de 12 sanciones impuestas por el Gobierno Vasco el año pasado les parece ridícula. "¿Cuántos controles se han realizado? -se preguntan. Todos sabemos que los menores acuden de manera habitual a salones de juego".

A la hora de analizar en profundidad el auge de los salones de juego y las casas de apuestas entre la juventud, Eragin hace una lectura de clase del citado fenómeno. "No podemos obviar el hecho de que la juventud, hoy por hoy, está condenada a una situación de precariedad generalizada. Y ve las apuestas como una manera de conseguir un dinero extra *fácilmente*. Un dinero que acaban perdiendo. Es decir, el sistema precariza cada vez más a la clase trabajadora y, además, le quita lo poco que tiene en las apuestas".

Estos jóvenes también destacan el componente desmovilizador e individualista de este tipo de negocios. "Muchos jóvenes con trabajos precarios en vez de pensar en plantar cara de una manera organizada y colectiva a su situación laboral opta por las apuestas, por ganar dinero y vivir en un tiempo futuro, que es irreal", explican.

Eragin-etik azaldu dutenez, "lan prekarioetan dabiltzan gazte askok, euren lan-egoerari modu antolatu eta kolektiboan aurre egin beharrean, apustuen bidez dirua irabazteko eta etorkizunean bizi izateko aukera egiten dute"

*De izda a dcha: Andrés Peña y Mikel Ruiz, de Eragin.*




Las estrategias de los locales para captar clientela y engancharla son también motivo de denuncia para Eragin. "Además de la publicidad, que es super agresiva, los salones de juego enganchan a los jóvenes a base de bajos precios en bocatas y bebidas lo que, por otra parte, es competencia desleal hacia otros negocios hosteleros… El objetivo es que estén allí, viendo un partido, consumiendo y luego jueguen… Y a la gente que juega mucho -a los clientes habituales- les invitan a las consumiciones para que se queden más rato y sigan jugando, que es lo que ellos persiguen", relatan.

Los equipos deportivos vascos, sobre todo los de élite, tampoco se libran de sus críticas. "Casi todos los equipos vascos de futbol y basket tienen patrocinio de las casas de apuestas. Es una manera de legitimar y normalizar una actividad con terribles consecuencias para la juventud", denuncian.

Finalmente, estos jóvenes incorporan, también, un elemento novedoso a la hora de abordar el problema: la lectura de género. "La inmensa mayoría de los jugadores son hombres, pero muchas de las trabajadoras de los salones son mujeres. Una vez más, se produce una utilización de la mujer como reclamo sexual, y tenemos constancia de que tienen que aguantar muchas situaciones indeseadas, en algunos casos rozando el acoso sexual, además de la precariedad laboral".

Mikel Ruiz y Andrés Peña concluyen asegurando que la campaña y movilizaciones contra los salones de juego y casas de apuestas de Eragin no ha hecho más que empezar.

# Ager vasconum bizirik

Errigora elkarteak Nafarroa hegoaldeko nekazaritza produktuen ekoizpena eta euskara sustatzea ditu helburu; dagoeneko ia milioi bat euro bideratu ditu Nafarroan euskara ofiziala ez den zonaldean euskarari hauspoa ematen ari diren proiektuetara

GORKA QUEVEDO



Tito Livio historialari erromatarrak (Padua, Kristo Aurreko 59 – Kristo Ondorengo 17) idatzi zuen lehenengoz ager vasconum. Quinto Sertorio general erromatarrak Kristo Aurreko 76. urtean Ebro ibaiaren inguruetan burutu zituen kanpaina militarrak jaso zituen Tito Liviok, eta bertan ager vasconum erabili zuen vascoien zonalde hori izendatzeko. Agerra vascoien lurraldean nekazaritza eta abeltzaintza "era zibilizatuan" egiten zen zonaldea litzateke. Erromatarrek vascoien beste zonalde geografikoa saltus vasconum bezala izendatzen zuten, mendi ingurua, bizitza "primitibo" nagusi zuena, ekonomia ez garatu eta ez produktiboarekin.

1986. urtean Nafarroako Parlamentuak Euskararen Legea onartu zuen; haren arabera Nafarroa hiru hizkuntza eremutan banatzen zen: euskal zonaldea, zonalde mistoa eta zonalde ez euskalduna. Bi mila urte pasatxo daude bi gertakari horien artean, baina "ager vasconum" eta "zonalde ez euskalduna" osatzen duten lurralde eremua parekatuko bagenitu, antzekotasunak oso nabarmenak lirateke. Ñabardurak ñabardura, lurralde eremu bertsuaz mintzo gara, Nafarroaren erdialdetik hegoalderako eremua; Cortestik Garesera eta Vianatik Zangozara.

**'Eremu ez euskalduna' helburu**

Mendeak dira erromatarren inperioa desagertu zenetik, baina ager vasconum-en nekazaritzak herritarren bizi-modu nagusia izaten jarraitzen du. Euskal Herriko baratza nagusia da, eta bertan ekoizten diren produktu asko bestela nekez lortuko lirateke gurean. Oliba olioa, karduak, orburuak, piper gorriak, kukuluak edo borrajak horren adibide dira. Aberatsa da bertako uzta, kalitate handiko barazki eta berduren sorburua.

Baina, zoritxarrez, euskararen uzta ez da hain aberatsa erromatarren garaian "ager vasconum" deitutako lurralde horretan. Hau da, Nafarroako Euskararen Legeak "eremu ez euskalduna" definitzen duen lurrean. Egoera hori irauli asmoz urriaren 12an Errigorak –euskalgintza eta elikadura burujabetza uztartzen dituen ekimen herritarrak– Agerraldia taldea aurkeztu zuen Tafallan. **Ibai Sueskun** Errigorako kidea da. Buru-belarri aritu da Tafallako aurkezpena prestatzen, baina tarte bat hartu ahal izan zuen bezperan Alda-rekin egoteko AEK-k Burlatan duen egoitzan.

**Euskara zabaltzekosarea ehuntzen**

"Alfabetatze eremuetatik kanpo, hau da, ikastoletatik edo euskaltegietatik kanpo, ez dago apenas aukerarik euskaraz aritzeko. Umeek, adibidez, normalean euskararekin duten lotura bakarra gela barruan izaten da, ez dute aisiaz euskaraz gozatzeko aukerarik.



*Ibai Sueskun, Errigorako kidea.*

Errigora es una iniciativa popular que tiene como base Euskal Herria y como herramienta el trabajo comunal. Tiene como eje el sur de Navarra y quiere influir en la zona donde el euskara no es oficial, abriendo paso a los alimentos propios de esta tierra en Euskal Herria. Desde, en y para el euskera.

Kanpaina honekin euskararen ezagutza, erabilera eta bere aldeko jarrera sustatu nahi dugu. Euskara zabaltzeko balioko duen sare bat sortu nahi dugu. Horretarako agenda indartsu bat garatu dugu, arlo ezberdinak jorratuko dituena: sozio-ekonomia, kultura, hezkuntza, kirola, aisia..."

Agerraldia Errigorak euskara sustatzeko martxan jarri duen azken ekimena da. Izan ere, hori da 2013an

>>




*Errigorak urriaren 12an 'Agerraldia' ekimena aurkeztu zuen Tafallan. Ekimenak herritar askoren babes zabala jaso zuen.*

Errigora tiene dos campañas principales. La primera, en primavera, y pretende influir en los hábitos de consumo. La segunda, Nafar hegoaldeko uzta euskarari puzka, en otoño, tiene como objetivo llevar cestas compuestas de productos del sur de Navarra a miles de hogares.

sortu zen ekimen honen helburu nagusietako bat: euskara. Beste helburu nagusia, elikadura burujabetza. "Errigoran kezka iturri ditugun bi gai lotzea lortu dugu: euskara eta elikadura burujabetza. Lehen kanpaina 2013. urtean egin genuen. Nafarroako hegoaldeko produktuz betetako saskiak saltzeari ekin genion, edozein dendatan izaten duten prezioan. Saski bakoitzak 50 euro balio zituen, jasotzen zen diruaren %25a euskarak duen egoera hobetzera bideratuko zireneko konpromisoarekin".

***Arrakasta itzela.*** 'Nafar hegoaldeko uzta euskarari puzka' izena jarri zioten lehen kanpaina horrek izugarrizko arrakasta izan zuen. "Guztira 8.000 saski baina gehiago saldu genituen, 122.000 euro inguru bildu ziren. Urtez urte eskaria handitzen joan da. Iragan urtean, 2018an, 13.000 saskitara heldu ginen, 165.000 euro bilduz. Ez gara heltzen, baina urte guzti hauetan ia milioi bat euro bideratu ditugu Nafarroa hegoaldean euskararen egoera hobetzeko".

Aurten ere Errigorak 'Nafar hegoaldeko uzta euskarari puzka' kanpaina burutu du. (Saskia eskatzeko epea azaroaren 20an amaitu zen). Beste behin milaka etxeetara eramango dituzte Nafarroa hegoaldeko produktuz osatutako saskiak. Aurten, gainera, saskietan berrikuntza bat egon dela aipatzen du Ibai Sueskunek. "Azken urteetan bi saski egon dira, ohiko saskia eta ekologikoa. Aurten hirugarren saski bat egon da aukeran, saski berezia bezala deitu duguna, bestelako produktuak jasotzen dituena. 'Nafar hegoaldeko uzta euskarari puzka' kanpaina Gabonen bueltan egiten denez, gabonsari moduko bat bihurtzea nahi dugu. Hurrengo urteei begira ere apustu honekin jarraituko dugu".

**Gero eta komunitate zabalagoa**

Urterik urte handituz doaz Errigorak jasotzen dituen eskaerak. "Lehen urteetan, logikoa den bezala, gu joaten ginen ekoizleen atzetik. Orain ekoizleak eurak datoz askotan guregana. Horrek argi uzten du proiektu sendo baten aurrean gaudela, eta gero eta gauza gehiago egiteko aukera ematen digu. Egun Nafarroa hegoaldeko produktuak ekoizten dituzten 25 hornitzailerekin egiten dugu lan, eta hau guztia saretzeko 200 lagunetik gorako komunitatea garatu dugu".

Ehunka boluntarioren parte hartzea. Lan handia dago gisa honetako kanpaina baten atzean. Irailean hasten dira ekoizleek aurreratutako laginekin saskiak betetzen. Gero

saskiak pilatu, eskaerak kudeatu eta Euskal Herri osoan zehar banatu behar dira. Hau guztia ezinezkoa litzateke 'Nafar hegoaldeko uzta euskarari puzka' kanpainarekin bat egiten duten 700 boluntario egongo ez balira.

"Egunetik egunera gero eta zabalagoa den komunitate batek gorpuzten du ekimen hau; ilusioz eta anbizioz ari garen herritar, nekazari, ekoizle, euskaltzale eta kontsumitzaileez osatutako sare anitz batek. Txikitasunetik elkarlan sare handia garatzea lortu dugu, sinistuta gaudelako Nafarroak Euskal Herria behar duela eta Euskal Herriak Nafarroa".

**Eskutik eskura.** Udazkenean abiatzen den 'Nafar hegoaldeko uzta euskarari puzka' kanpaina ez da Errigorak urtean egiten duen bakarra. Udaberrian 'Nafar hegoaldeko uzta eskutik eskura' ekimena abiarazten du. "Eguneroko kontsumo ohituretan eragiteko jaio zen kanpaina. Oliba-olio birjina estra eta kontserba-sortak eska daitezke, auzolanari esker, norbere herrian ekoizlearen jatorrizko prezioan. Horretako bitartekariak kentzen ditugu; elkar-truke zuzena eta auzolana dira gure ardatzak. Olioa 5 litroko bidoietan banatzen da eta kontserbak 12 ontziko sortetan. Horrela urte osorako eskatu litezke lehen mailako produktu hauek".

Asko hazi da Errigora. Urteko bi kanpaina nagusietan, udazkenekoa eta udaberrikoa, eskaerak gero eta gehiago dira. Baina ez dira konformatzen. Gehiago nahi dute. "Urte osoan zehar Erriberako piperrak Hernanin eta orburuak Iparraldean egotea da gure helburua. Hau da, urtean egiten ditugun bi kanpaina nagusietatik harantzago urte osoan zehar iraunkorra izango den proiektu bat garatzea nahi dugu. Buelta asko ematen dizkiogu helburu honi. Guretzat funtsezkoa da Erribera gainontzeko euskal lurraldeetara gerturatzea. Eta bertako ortuak aukera ematen digu horretarako. Amesten hasita, polita litzateke Euskal Herriko erdigune geografikoan, Sakana aldean, biltoki handi bat izatea Erriberako produktu hauek Euskal Herriko edozein txokotan urte osoan zehar ahalik eta gertuen egoteko. Asko falta zaigu puntu horretara heltzeko, baina duela sei urte lehen kanpainari ekin genionean ez genuen uste honaino helduko ginelarik".

Ez da helburu makala, baina Ibai Sueskun eta Errigorako gainontzeko kideak sinetsita daude gisa honetako ekimenak ezinbestekoak direla euskarak Erriberan biziraun behar badu. "Erribera 'zona no vascofona' deritzanaren parte da, eta euskara ez da ofiziala. Soilik populazioaren %3,9 da euskalduna, eta %10,3 ia euskalduna. Urte hauetan lortutako diruarekin hamaika ekimen garatu ditugu: bertako ikastolen egoera ekonomiko itogarria arindu dugu, helduen alfabetatze kanpainak sustatu ditugu, Euskaraz bizi eta ikasi ekimena sortu dugu... Guk ez badugu egiten ez du inork egingo, hori oso argi daukagu".

El 25% del dinero recaudado por Errigora se destina al euskera. Desde la primera campaña, en 2013, esta iniciativa popular ha destinado casi un millón de euros a diferentes proyectos relacionados con el euskera en el territorio que la Ley de Euskera define como "zona no vascófona".



# Garaipen sindikal berri bat EAEko Itunpeko Irakaskuntzan




ELAren iritziz EAEko Itunpeko Irakaskuntzan azaroaren 8an lorturiko akordioa inoiz ez bezalakoa izan da, eta akordioaren giltzarriak langileen antolamendua eta grebak areagotzea izan direla adierazi dute. “Akordioaren gakoa mobilizazioen dinamika izan da, 29 greba-egun behar izan dira helmugara iristeko. Langile horiek 10 urtez egon dira beren hitzarmena berritu gabe, eta grebari eta grebalariei esker, eskakizun nagusiak eskuratu dituzte. Horrek oso eragin onuragarria izango du lan-baldintzetan, eta ondorioz, ikasleen hezkuntzaren kalitatean” ziurtatu dute.

ELAk akordioaren garrantzia azpimarratu du, edukiengatik berengatik, eskakizun ia guztiak onartu direlako, eta baita sektoreko langileen negoziazio kolektiborako eskubidea onartzeagatik ere, patronalen eta Eusko Jaurlaritzaren borondatearen aurka.

Miren Zubizarreta patronalen eta Eusko Jaurlaritzaren jarrera temati eta antinegoziatzaileari leporatu die gatazkaren iraupen luzearen errua, “azken unera arte ez baitituzte proposatu akordioa ahalbidetu duten edukiak eta proposamenak”. “Sindikatuok beti erakutsi ditugu adostasunerako borondatea, zintzotasuna eta malgutasuna. Behin eta berriz deitu diegu patronalei eta Hezkuntza Sailari, eduki eta proposamen egokiak aurkeztera, eta gatazkaren konponbidean parte hartzera; hala ere, aurreko bi ikasturteetan 27 greba-egun egin behar izan dira, eta ikasturte honetan hilabete jarraituko greba-deialdia egin, eta grebaren lehenengo bi egunetan langileen jarraipen zabala ikusi behar izan da, akordioa egiteko” kritikatu du.

Halaber, ELAk grebalariak zoriondu ditu, gatazka luze horretan erakutsitako irmotasun eta indarragatik. “Akordio hau haiek lortu dute” nabarmendu du.

## Beste zortzi eguneko greba Bizkaiko Metalean azaroan eta abenduan

ELA, CCOO, LAB, UGT, ESK, CGT, USO eta CNTk deituta, greba egingo dute azaroaren 28 eta 29an eta abenduaren 4, 5, 12, 13, 18 eta 19an, Bizkaiko Metalarentzat Sektoreko Hitzarmen duina aldarrikatzeko. Dagoeneko 10 greba egun egin dituzte langileek.

Aldarrikapen zehatzak berretsi dituzte. Alde batetik, galdutako eros ahalmena berreskuratzeko adina igoera eskatzen dute soldatetan. Bigarrenik, subrogaziorako eskubidea aldarrikatzen dute, prekarietateari aurre egiteko ezinbestekoa elementua dela iritzita. Hirugarrenik, behin-behinekotasun tasa handiaren gaineko kontrola eta Aldi Baterako Laneko Enpresen (ABLE) gehiegizko erabilpena iraultzea nahi dute.

## 4 meses de huelga en Novaltia para recuperar su convenio

La plantilla de Novaltia, la mayor distribuidora farmacéutica de la Comunidad Autónoma Vasca, se encuentra en huelga indefinida desde el pasado 22 de julio en defensa de su convenio.

A principios de año la empresa Novaltia decidió unilateralmente romper con la mesa de negociación del nuevo convenio para poder aplicar el convenio estatal. La plantilla quiere recuperar su convenio, eliminar las escalas salariales dobles, limitar la subcontratación, reducir la jornada y lograr subidas salariales.




## ELA emplaza al Grupo Mondragón a dar una salida a Araluce

Ante la autoritaria actitud de la cooperativa Batz con Araluce, ELA emplaza a la dirección del Grupo Mondragón a que dé una salida al conflicto existente. Mientras que la plantilla de Araluce lucha por la viabilidad de la empresa, Batz está empeñada en cerrarla, por las buenas o por las malas. De ahí el ilegal cierre patronal decretado y el intento de robo de los troqueles. Batz -perteneciente al Grupo cooperativo Mondragón- anunció hace unas semanas su intención de cerrar Araluce. La cooperativa adquirió la compañía en noviembre de 2016 para ampliar su división de fabricación de troqueles destinados a la industria del automóvil. Entonces, los trabajadores asumieron recortes laborales importantes para ayudar a la viabilidad de la empresa, pero los compromisos del Grupo Batz han quedado en papel mojado tan solo tres años después.

## Elorrioko garbikuntzako langileek euren soldata %21a igotzea lortu dute

Lan-baldintza duinen alde apirilaren 29tik greban izan diren Elorrioko eraikin publikoetako garbikuntzako langileek gatazkari amaiera eman dio akordioa lortu dute Udalarekin. Akordioak langileek egindako hainbat aldarrikapen aintzat hartzen ditu, besteak beste, honako hauek: lan-karga handiari aurre egin ahal izateko lanaldiak luzatzea, kategoria igoerak, lanaldi partzialak hobetzeko neurriak, etab. Guztira, langileek kolektiboaren soldata %20, 76 igotzea lortu dute.

Akordioa posible izan da langileen mobilizazio eta borrokarako gaitasunari esker. Azpimarratzekoa da langileen arteko batasuna, hasieratik argi izan baitute garaipena borrokatuz eskuratuko zutela.

ELAren eta langileen ustez garaipen hau soldata arrakalaren aurkako borroka argia da. Zentzu horretan tamalgarria iruditzen zaio bost hilabetez luzatu behar izana gatazka bidezkoak ziren lan-baldintzak eskuratu ahal izateko. “Argi dago Administrazioak azpikontratatutako esparruan grebak ezinbestekoak direla, hain zuzen, azpikontratazio sistemak berak bultzatzen dituen miseriazko baldintzak gainditzeko”, baieztatu dute langileek.

## ELA rechaza la sentencia del procés

ELA ha participado activamente en las movilizaciones de protesta realizadas en Hego Euskal Herria contra la sentencia del procés: las concentraciones ruidosas convocadas por Gure Esku el 14 de octubre en todos los municipios, las concentraciones en empresas y polígonos del 18 de octubre convocadas por la mayoría sindical, y la manifestación organizada por Gure Esku en Donostia el 19 de octubre bajo el lema `Votar no es delito. Libertad´. En opinión de ELA, “ninguna sentencia judicial va a solucionar el conflicto político planteado por una nación como la catalana que lucha por su reconocimiento”.

## Hilabeteko greba -azaroaren 11tik abenduaren 11ra- Gipuzkoako zahar egoitzetan

Gipuzkoako egoitzetako langileek zenbait mobilizazio egin dute azaroan Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrean negoziazio-mahaian erakunde horrek izandako jokabidea kritikatzeko, eta gatazkaren konponbidean parte har dezan eskatzeko. Gatazka larriagotu da azaroaren 8an UGTrekin akordio antidemokratiko bat sinatu ondoren, sindikatu horrek ez baitu ezta ordezkaritzaren %10 ere sektore horretan.

Egoitzetako langileak suminduta agertu dira Aldundiaren jardunagatik; izan ere, sektoreko patronalekin lan egin beharrean, ELAk eta patronalak duela hilabete batzuk lortutako akordioaren finantzaketa adosteko, estatutuz kanpoko akordio bat sinatzearen alde agertu da, sektorea desmobilizatzeko eta grebarekin amaitzeko, baina “ez dute horrelakorik lortuko” ziurtatu dute. ELAk UGTren eta sektoreko lau patronalen jarduera “larri eta lotsagarria “salatu du.

ELAk Gipuzkoako egoitzetan eta eguneko zentroetan deitutako grebaldi berri honek azaroaren 11tik abenduaren 11ra iraungo du. 31 egun horiek iazko irailetik dagoeneko eginda dauden 118ei gehituko zaizkie. Guztira, 149 greba-egun izango dira.

# Anoeta: Gola iruzurrari eta prekarietateari

Lan Ikuskaritzak arrazoia eman dio ELAri, Realaren zelaiko obretan egindako lan-irregulartasun larriak direla-eta. Erakunde publikoak, bitartean, beste aldera begiratuz egon dira.

J.JAIO

**» Orain dela bi urte iragarri zenuen, eta orain Lan Ikuskaritzak arrazoia eman dizu: Anoeta birmoldatzeko osagaiak lan-prekarietatea eta iruzur orokorra izan dira.**

**IGOR SAN JOSÉ:** Hala da. Eta kontua ez da ELAn beste inor baino azkarragoak garenik, kontua da ez dugula beste aldera begiratu, herri-erakundeek egin duten bezala. Bistakoa zen obra hori prekarietate eta iruzurraren kontura egingo zela; izan ere, Anoeta Kiroldegiak 50 milioiko aurrekontua egin zuen, eta sektore horretako edozein adituk ondo daki kostua ezin dela izan 70 milioi baino gutxiagokoa. Nolatan, ba, 70 milioi balio duena 50 milioitan egitea? Langileen prekarietatearen eta iruzurraren kontura.

Helburua Realak ahalik eta gutxien ordaintzea da; nahiz eta, horretarako, langileen baldintza sozio-laboralak eta diru publikoa kaltetan atera.

**» Nolako lan-baldintzetan egin da obra hori? Esklabutzaren hurrena dela esan ere esan duzu...**

ELAk salatutako eta dokumentatutako irregulartasunen artean 12 orduko abusuzko lanaldiak izan dira, eta are 14koak ere, kasuren batean; soldata ziztrinak jaso dituzte –kontzeptu guztiengatik lan egindako ordu bakoitzeko batez besteko 5 eta 8 euro bitarteko soldata; aparteko ordainsariak, oporrak, dietak eta kalte-ordainak jasotzeko eskubiderik gabe–; eta langileen legez kanpoko lagapenak ere izan dira. Anoeta estadioa eraberritzeko lanetan jardun duten 300etik gora langileetako gehienak etorkinak dira, eta Gipuzkoako Eraikuntzaren Hitzarmenean ezarritakoa baino %60 gutxiago kobratu dute.



*Igor San José*

Gainera, norbaitek istripuren bat edo gaixotasunen bat badu, eta medikuaren baja ematen badiote, edo bere lan-egoera salatzea erabakitzen badu, berehala kaleratua izaten da. Era berean, segurtasun-arloko ez-betetze nabarmenak izan dira: Anoetako obretan gertatutako istripuak ez dira txiripaz izan edo

ezinbesteko arrazoiengatik, baizik eta obraren prezioak, epeak eta irudia lehenestearen ondorio logikoa.

**» ELAren kalkuluen arabera enpresek 4,5 milioi euro zor dizkiete langileei, hitzarmena ez betetzearen ondorioz.**

Eta ziur aski motz geratu gara… Zoritxarrez, langile horietako gehienek ez dute eskubidez dagokiena kobratuko, banakako erreklamazioak egin behar direlako, eta obretan parte hartu duten langileen %10ek bakarrik egin dute hori orain arte. Hemendik obra amaitu arte, gehiago izan daitezen saiatuko gara. Aurkeztutako erreklamazioen kopurua oso txikia izan da, langile asko jada ez daudelako obran edo ezta herrialde honetan ere; eta gehien-gehienak erreklamatzearen beldur dira, kaleratuak izatearen beldurrez.

**» ELAk lan-arloko hainbat erakundetan salaketak aurkeztu ditu 20 azpikontrataren aurka eta Anoeta Zelaia UTEaren beraren aurka. Salaketa horietako batzuen ondorioz zehapenak ezarri dira.**

Eskudun agintaritzak ezarritako zehapenen diru-kopurua 250.000 eurokoa da, baina 500.000 eurotik gorakoak ere izan litezke, ebazpen batzuk oraindik eman gabe baitaude. ELAk irregulartasunen bila jarraituko du, obrak amaitu arte, hau da, 2020ko martxora arte, gutxi gorabehera.

**» ELAk, halaber, jakinarazi dio Lan Ikuskaritzari 200etik gora langilek dokumentu faltsuak dituztela.**

Dokumentu faltsu horien artean langileen azterketa medikoak eta lan-arriskuen prebentzioko ikastaroenak aurkitu ditugu,

> “Era evidente que la remodelación de Anoeta se haría a base de precariedad y fraude desde el momento en que fue presupuestada en 50 millones en vez de los 70 que cualquiera que conozca el sector sabe que valdría”.

eraikuntzan lan egiteko nahitaezko dokumentuak baitira horiek. Eusko Jaurlaritzaren Lan Sailak ELAren salaketak berretsi ditu, eta fiskaltzaren eskuetan utzi ditu kasu horietako batzuk. Ikusi beharko da noraino iristen diren.

**» Argi dago gertakari horiek larriak direla. Zer mezu bidaltzen diezu erakundeei?**

Anoetako birmoldatze-obretan gertaturikoa eskandaluzkoa da. Gauza bat da futboltzalea izatea edo txuri-urdin koloreak maitatzea eta bestelako bat ontzat emandako iruzurra, denon diruaz, non langileen baldintzak hain prekarioak diren, eta sektoreko hitzarmena bete gabe uzten den. Anoetako estadioan bi liga jokatzen dira: izarrena eta lur jotakoena.

Eta eskandaluzkoa da, bai Donostiako Udalaren jarrera, eta baita Realarena ere. Orain arte beste aldera begiratu dute, baina Anoetan gertatzen denaz haiek dira azken erantzuleak.

Bilerak egin ditugu Realeko presidentearekin eta Donostiako alkatearekin –Eneko Goia–, eta gure salaketei eman dieten erantzuna hauxe: “hori ez da bakarrik gertatzen Anoetako obran…”.

Erantzukizunak gainetik astindu nahi dituzte, eta hori onartezina da. Anoetan gertaturikoak baditu bere aurrekariak beste obra batzuetan: Abiadura Handiko Trena, Tabakalera, Musikene, San Mames… Horiek guztiak obra publikoak izan dira. Eta aurrerantzean ere beste horrenbeste gertatuko da, erakundeek beste aldera begiratzen badute.

**» Estadioaren 2018ko irailaren 15eko inaugurazio partzialaren inguruabarrak ere salatu dituzu…**

Realaren eta inguruko erakundeen helburu nagusia zen 2018-2019 ligaren hasierarako dena prest edukitzea, eta horretarako, dena zen zilegi: gehiegizko lanaldiak, erritmo azkarregiak, lan-segurtasun eta prebentzioko ez-betetze etengabeak, obra-amaiera prekarioak, premeditaziozko eta arrisku oroko irekiera-baimenak…

Norbaitentzat *‘Aupa Reala’*k den-dena zuritzen du.

**» Orain inork ukatzen ez duen iruzurra azaleratzeko prozesua nolakoa izan da?**

Obra horretan den-dena azpikontratatu da, eta UTEak azpikontratarik merkeenak eta maulazkoenak kontratatu ditu.

Eraikuntzako Gipuzkoako ELAko jendearen lana azpikontratak eta haietako langileak identifikatzea izan da. Eta horretarako, bi urtetan ia egunero obran bertan egon gara, lokatzetan, eraikuntzaren bilakaera ikusten, argazkiak egiten, datuak biltzen, eta puzzlea osatzen. Iruzurraren frogak behar genituen: lanen agiriak, orduen agiriak, nominak… Lan Ikuskaritzara joan aurretik dena ondo landuta eta dokumentatuta eduki behar genuen.

»

Eta ia egunero joan gara, langileek ere ikus gaitzaten, eguneroko paisaiarekin bat eginez.

Hasieran oso uzkur zebiltzan, eta ez zuten gurekin geratu nahi obratik kanpo. Beldur handia zuten. Eta gaur egun ere, erreklamatu ez dutenek badakite zenbat diru eraman duten erreklamatzera ausartu direnek, eta hala ere, ez dira oraindik erreklamatzera ausartu.




Inspección de Trabajo ha dado la razón al sindicato en su denuncia de las gravísimas irregularidades laborales en las obras del campo de La Real. Las empresas deben a sus trabajadores más de 4,5 millones de euro, y las sanciones impuestas podrían superar los 500.000 euros.

**»Hain babes gabe dauden langileen beldurra nola gainditu daiteke?**

Jendearen beldurra ulertzekoa da. Oso jende behartsua da: hegoamerikarrak, afrikarrak, pakistandarrak, magrebtarrak, portugaldarrak... Haietako asko obra hori egitera espreski etorritakoak dira, gero jatorriko herrialdeetara itzultzeko. Haietako askok ez dute gaztelaniaz ulertzen, are gutxiago euskaraz. Anoeta Babel dorrea izan da.

Babes gabeziaren testuinguru horretan gure lana haiek babestea izan da, eta baita hemengo langileak ere. Ezin dugu onartu dumping soziala. Baina gure etsaia ez dira hori pairatzen dutenak. Gure etsaia esplotatzaileak eta dumping-sustatzaileak dira.

**»2018ko abuztuaren 1a mugarri bat izan zen obra horretan. Zergatik?**

Abuztuaren 1ean ezagutu zen Lan Ikuskaritzaren ebazpena, UTEaren eta Vilariño azpikontrataren aurka. 50.000 euroko isuna ezarri die, 25.000na euro, eta ontzat eman ditu gure salaketa guztiak.

Garrantzi handienekoa da frogatutzat jo dela azpikontratak langileen legez kontrako lagapena egin diola UTEari. Ondorioz, Vilariñoko langileak, hala nahi badute, UTEko langile finkoak izatera aldatu daitezke. Hortaz, UTEko zuzeneko langileak izan daitezke, eta Gipuzkoako Eraikuntza Hitzarmenaren arabera kobratuko dute.

**»Garaipen sindikal hartatik aurrera nola aldatu dira gauzak?**

Dinamika berri batean murgildu gara. Izatez, enpresa gehiagori zehapen gehiago noiz ezarriko dieten zain gaude.

Horren eraginez, bitariko erantzuna gertatu da; batetik, azpikontrata batzuek obra utzi dute, isunen beldurrez, eta hitzarmena bete behar ez izateagatik; eta bestetik, langile gehiago ausartu dira Vilariñoko langileen arrastotik joatera, eta beren enpresak salatu dituzte, zor dieten dirua erreklamatzeko.

**»Argi dago ELAren jokabideak jende askoren bizitza aldatu duela.**

Langile horiek guztiak hezur-maminezkoak dira, eta oso ibilbide gogorrak izan dituzte. Sindikatuaren jokabidea dela-eta, langile horien bizimodua kalitate handiagokoa dela jakitea pozgarria da guretzat, gure lanak merezi duela pentsarazten digu.

Lanak amaitu arte han jarraituko dugu, gure harri koskorra jartzen, horrelakorik errepika ez dadin; eta errepikatuz gero, zigortu gabe gera ez dadin.

Gure lana, sindikatu garen aldetik, hitzarmena betearaztea da, eta dumping sozial horrekin amaitzea ere bai, langileria osoarentzat kaltegarria baita. Eta harro gaude horretaz...

Freddy Gutiérrez, trabajador de origen colombiano en las obras de Anoeta, relata su periplo vital y laboral en nuestro país

# Cruce de caminos



J. JAIO

La historia de Freddy Gutiérrez en el estado español se teje a base de infortunios y de solidaridad, por igual. Llegó a Barajas hace 20 años -con 26- desde su Colombia natal. En Cali dejó a su hijo de 6 años al cuidado de unas tías. Supuestamente, en el aeropuerto madrileño le iba a estar esperando un amigo colombiano, pero éste no apareció. Se encontró solo, sin apenas dinero y a miles de kilómetros de su casa. Una mujer migrante que trabajaba en el aeropuerto fue su ángel de la guarda. Ella le puso en contacto con el dueño de un locutorio donde pernoctó varias noches y conoció a una persona que le ofreció trabajo cortando árboles. Así recaló en Aranguren (Bizkaia), donde pasó una temporada trabajando en el monte y durmiendo en unas caballerizas, hasta que reclamó lo que le habían prometido...Y vuelta a empezar de cero.

Buscando, buscando, en un bar de Zalla le pusieron en contacto con una empresa de reformas. Fue su primera experiencia en el sector de la construcción. De ahí pasó a una obra en Alonsotegi: le cayó bien al encargado y éste se ocupó de conseguirle los papeles; en el interín le dio trabajo, a escondidas, los fines de semana. Freddy dormía en la obra y aprendía el oficio de mano de los trabajadores a destajo: albañileria, fontanería, pintura... Desde entonces, ha trabajado en la Construcción, en lo que le ha salido.

**Anoeta**

A lo largo de estos años, Freddy se iba formando. Su obsesión siempre ha sido trabajar. Ha encontrado empleos yendo de obra en obra, a través de Lanbide y también a través de las páginas de diferentes webs de empleo. Precisamente así llegó a Anoeta. “En una de éstas, -relata- me llama una empresa de Galicia – Vilariño- para decirme que han visto mi curriculum, y me ofrecen trabajar en la obra del Polideportivo de San Mamés. También me aseguran que las condiciones laborales serán las del convenio de la Construcción de Bizkaia. A mí se me abre el cielo y acepto el trabajo”.

Los incumplimientos, sin embargo, comienzan en el minuto cero. “Cuando me presento me dicen que antes de empezar en Bilbao necesitan que trabaje unos días en San Sebastián, en las obras de remodelación del estadio de Anoeta”. Era el 5 de marzo de 2018. Desde esa fecha, de lunes a sábado, Freddy hacía diariamente el trayecto Bilbao-Donostia, ida y vuelta, junto a otros compañeros, en una furgoneta de la empresa conducida por él. Lo que iba a ser unos días se alargó a toda su relación laboral con la subcontrata Vilariño. Freddy nunca llegó a trabajar en las obras del Polideportivo de San Mamés.

“Anoeta era una locura. Éramos entre 200 y 300 personas de distintas subcontratas y nacionalidades realizando todo tipo de trabajos. Nos dijeron que la jornada laboral sería de 8 horas, pero fue mentira. Normalmente trabajábamos de 8 de la mañana a 8 de la tarde, con un descanso para comer. Los sábados también trabajábamos todo el día. Y a eso hay que sumarle las horas que pasábamos en la carretera en desplazamientos. A mí me pagaban 6,5 euros la hora, todo incluido, (vacaciones, pagas, dietas, kilometraje...), »

cuando según el convenio de la Construcción de Gipuzkoa la hora sale a 16,50. Los sábados cobraba un euro más, cuando la hora extra, según convenio, se cotiza a 27 euros. Es decir, nada que ver con el convenio de la construcción de Bizkaia, y mucho menos con el de Gipuzkoa, que es el que tenían que aplicarnos", relata.

**Cruce de caminos**

A pesar de los incumplimientos de Vilariño, Freddy -como el resto de trabajadores- no podía permitirse el lujo de renunciar a un trabajo. La hipoteca del piso, la familia en Colombia, las facturas... mandan. Así que, como siempre había hecho, no le quedó otra que poner buena cara al mal tiempo y aguantar... hasta que su camino se cruzó con el de Igor San José. "Al de poco de llegar me fijé en que había un tipo que estaba todo el día sacando fotos y tomando notas. El encargado enseguida nos ordenó que no nos acercáramos ni habláramos con él. Al principio le mirábamos con desconfianza, como alguien peligroso para nosotros", recuerda.

Igor, sin embargo, se las arregló para ir ganándose la confianza de la gente, dejar tarjetas del sindicato con su número de teléfono en los vestuarios y entablar contacto con los trabajadores fuera de horario y lejos de la obra. "Al principio, el miedo te inmoviliza. Cuesta dar el paso. Teniendo ya el teléfono de Igor, en alguna ocasión le llamé para decirle que, por favor, no me hablara en la obra ni me saludara, porque podía perjudicarme. Teníamos miedo a perder el trabajo si el encargado sospechaba que estábamos en contacto con el sindicato", explica.

**Inspección de Trabajo**

Con toda la información que Igor San José fue logrando de los trabajadores de la subcontrata Vilariño y la conseguida por su cuenta, denunció la situación a la Inspección de Trabajo, que el 1 de agosto de 2018 dictó una resolución que cambió la vida de Freddy y sus compañeros. "La Inspección de Trabajo da la razón a ELA y entiende demostrada que se ha producido una cesión ilegal de trabajadores de Vilariño a la UTE. Eso supone que podemos decidir si seguir en la subcontrata o pasar a ser trabajadores fijos de la UTE. Yo pasé a la UTE. Y de un día para otro, a tener derechos laborales", cuenta. "Me cambiaron la ropa de trabajo, el material, el vehículo en el que nos trasladábamos a Bilbao y, lo más importante, las condiciones laborales. Me

> Lesioa lehenago eginez gero, hauetako bietatik bat: baja hartu eta kaleratuko ala lanean jarraitu eta lesioa larriagotuko...

empezaron a aplicar el convenio de la Construcción de Gipuzkoa, y cobré 8.000 euros brutos por cantidades dejadas de percibir en solo cinco meses de trabajo".

A raíz de que los trabajadores de la subcontrata Vilariño pasaron a ser de la UTE, ELA convocó elecciones sindicales y Freddy salió elegido delegado. "El sindicato me ha ayudado, y yo, ahora, quiero aportar y ayudar también, en mi empresa y en la obra; de hecho, intento acercarme a los compañeros de otras subcontratas y les animo a reclamar lo que les pertenece, a seguir nuestro camino".

**Su primera baja**

Freddy ahora está de baja por una lesión en el hombro. Es su primera baja en 20 años. Si llega a lesionarse antes de pasar a la UTE estaría en la calle. "Una de dos: o habría cogido la baja y me habrían despedido. O habría seguido trabajando, con las consecuencias físicas que eso hubiera tenido... ", elucubra con alivio.

Estamos acabando la conversación, y Freddy nos cuenta que está con muchas ganas de disfrutar de sus primeras vacaciones pagadas. Planea ir a Colombia, a conocer a su nieto, hijo de aquel niño de 6 años que dejó al cuidado de sus tías hace ya dos décadas.

Con una gran sonrisa, no quiere acabar su historia sin agradecer a Igor San José el día en que se cruzó en su camino... "Gracias a él estoy ahora aquí sentado. Tiene el respeto y el aprecio de todos los trabajadores de Anoeta. Es un poco nuestro padre", concluye con emoción.



**Zure iritzia nahi dugu jaso...** Bidali **alda@ela.eus** helbidera
Puedes hacernos llegar tus opiniones y sugerencias por email: **alda@ela.eus** o por correo ordinario, enviando una carta a: **ALDA. Barrainkua 13, 48009 Bilbao**

# La cultura que no es indiferente ante el conflicto social

**PEDRO MARTÍNEZ, VITÍN •**

Vienen de fuera para ensalzar las luchas sindicales. Ken Loach hace buen cine, social y comprometido. Ha sido premiado en el Festival de Cine de Donostia y se ha dejado ver. ¿Con quién? Con las huelguistas -mujeres- de las Residencias de Gipuzkoa, que ejercen su derecho de huelga para mejorar sus condiciones de trabajo y la asistencia a nuestros mayores. Mujeres que dejan en evidencia la hipocresía de Markel Olano (PNV).

Tiene que venir un director de cine de fuera para que la cultura se impregne de la realidad social conflictiva que estorba a las autoridades.

No solo se puso su camiseta. En la gala final en la que le premiaron se leyó un texto suyo en el que pidió apoyo para las mujeres huelguistas y para el sindicato que las organiza, ELA.

Los representantes institucionales -que obviamente no aplaudieron- no pudieron impedir eso. No estaba en su mano. Lo que sí impidieron -con prohibiciones- es que las movilizaciones de esas mujeres se pudiesen realizar en el centro de la ciudad, cerca del Festival. No querían que una estampa conflictiva empañe la imagen idílica que quieren transmitir del país. ¡No, huelgas no!

Las palabras de Ken salieron en directo en La 2 de TVE y en ETB-1. En directo. Al poco rato en mi móvil comencé a recibir mensajes de lo que había pasado en la gala final. Un escalofrío de emoción recorrió mi cuerpo. No estamos acostumbrados. ¡Todo un director de cine, renombrado, que se solidariza y pide apoyo para esas mujeres! Ken Loach es inglés y defiende a la clase trabajadora. No cree que esté pasado de moda, precisamente, porque ve que cada vez más gente sufre la precariedad. Sus películas hablan de eso.

¿Y por qué Ken Loach es capaz de hacer eso? Porque a Ken las instituciones vascas no lo tienen en nómina. Es libre. Lo subvencionado termina adquiriendo, cuando menos, autocensura. Ken no. Es de esa cultura que se impregna de la calle, de los problemas y el sufrimiento de la gente. Ken despierta conciencias. Nuestras autoridades, sin embargo, duermen a la gente, la quieren ignorante e indiferente.

Al día siguiente, mirando la prensa, esperando ver destacado el gesto de Loach. Tonto de mí. Están a otras cosas. Hacer una narrativa positiva de lucha sindical no va con ellos. De nuestro país, hacia el exterior, se vende el cooperativismo, la gastronomía, el fútbol, nuestros bellos paisajes… Pero no debe ser noticia una lucha sindical ejemplar, protagonizada por mujeres.

Ya dijo Ortuzar que las huelgas de ELA eran “antipatrióticas”. Y Urkullu, que siempre está con la patronal, arremete contra los sindicatos. Un lehendakari como contrapunto a la dignidad de Ken Loach. Si en algún país están faltos de neoliberales también eso podemos exportar. Nos sobran.

Ojala en la cultura vasca tuviéramos muchos Ken Loach. A



FE DE ERRATAS: En el anterior número de ALDA (septiembre-octubre), en el reportaje sobre la huelga que mantenían las trabajadoras de la limpieza de los locales públicos de Elorrio, cometimos dos errores importantes. En primer lugar, se afirmaba que la brecha salarial era del 42% cuando en realidad superaba el 80%. En segundo lugar, se decía que la limpieza viaria de la localidad estaba subcontratada cuando son trabajadores directos de ayuntamiento. Pedimos disculpas por ambos errores y los malentendidos que hubieran podido ocasionar.


Gaur zu,
tu pensión
U
30
Greb
Orokor


, bihar ni
e decide hoy
pa
ra
ELA
EUSKAL SINDIKATUA




# “Si nuestras reivindicaciones no están en la calle, no están en ningún sitio”

Mikel Noval explica que la Carta Social de Euskal Herria ha convocado huelga general el 30 de enero para situar en el centro del debate político la necesidad de trabajo, pensiones y vida dignas.

ALDA

**»La Carta Social anunció hace unas semanas una campaña para reclamar algo tan básico como trabajo, pensiones y vida digna, con distintas movilizaciones que culminarán el 30 de enero de 2020 con una huelga general. ¿Cómo y por qué se llega a esta convocatoria?**

**MIKEL NOVAL:** Yo creo que es importante recordar que hace seis años numerosos sindicatos y agentes sociales constituimos, a través de un proceso participativo, la Carta de Derechos Sociales de Euskal Herria, y desde entonces hemos desarrollado iniciativas en favor de esos derechos.

La reflexión que hay detrás de esta agenda compartida por sindicatos y movimientos sociales es que las políticas que se aplican responden a una dinámica neoliberal que ataca los derechos laborales, sociales y mediambientales más básicos.

Hace varios meses, el movimiento de pensionistas de Hego Euskal Herria, que lleva dos años movilizándose todas las semanas, apuntó la necesidad de dar un salto cualitativo en su dinámica movilizadora; dinámica, no lo olvidemos, que ha dado resultado: han conseguido, por ejemplo, la revalorización de las pensiones, aunque no han logrado echar atrás, de momento, las últimas reformas.

Plantearon incorporar a otros sectores sociales en su lucha, y los miembros de la Carta, tras hacer una lectura compartida con ellos, recogimos el guante convocando diversas movilizaciones, que culminarán con una huelga general el próximo 30 de enero.

**»La Carta Social ha sido acusada de intentar patrimonializar al movimiento de pensionistas.**

Eso no es cierto. Las conversaciones se han llevado a cabo con la coordinadora de pensionistas de Hego Euskal Herria, que representa al conjunto del movimiento de pensionistas. La campaña, las movilizaciones y la convocatoria de huelga ha sido una decisión hablada  y consensuada con ellos.

La Carta no ha querido patrimonializar nada. Los pensionistas son los que nos han pedido que unamos fuerzas. Y creemos que hay motivos para sumar porque entendemos que es una lucha que nos afecta a todos y todas. En este sentido, yo daría mucho valor a la pluralidad de la convocatoria.

**»¿Qué se pretende conseguir con esta huelga general?**

Teniendo en cuenta la situación, nos parece necesario dar un salto en la lucha en favor de unas condiciones de trabajo, unas pensiones y una vida dignas. Nos une este convencimiento triple: por un lado, las pensiones son cosa de todas y todos, tanto de las personas que actualmente son pensionistas como de las del futuro; por otro lado, la lucha en favor de unas condiciones de trabajo dignas es imprescindible; y, por último, se han de garantizar los derechos sociales de todas las personas que vivimos en este país.

Si nuestras reivindicaciones no están en la calle no están en ningún sitio; nadie nos hará caso. La huelga es una gran ocasión para recuperar lo que nos han quitado esta última década y para pasar a la ofensiva. Por eso hemos desarrollado una tabla reivindicativa muy potente: pensión mínima de 1.080 euros, edad máxima de jubilación a los 65 años, salario mínimo de 1.200 euros, jornada de 35 horas semanales, dejar sin efecto las reformas laborales y de negociación colectiva aprobadas los últimos años, garantizar los derechos sociales…

Se trata de poner freno a la precarización de las condiciones de trabajo y de vida, profundizada en las últimas décadas y promover medidas que garanticen condiciones laborales, pensiones y una vida dignas.



*Mikel Noval*

**»UGT y CCOO no apoyan esta huelga.**

Es normal. No podemos olvidar que UGT y CCOO  firmaron los recortes de las pensiones aprobados en las reformas de 2011 y 2013. Evidentemente, es muy difícil apoyar una huelga que va contra una situación que ellos han provocado.

**»La convocatoria de huelga general no ha gustado ni al Gobierno Vasco ni a la patronal. La han calificado de huelga política y han asegurado que no les interpela porque lo que se reclama no es de su competencia. ¿A quién va dirigida esta huelga?**

En primer lugar, es cierto que es una huelga política en el sentido de que vamos contra unas determinadas políticas públicas y estamos poniendo en el centro del debate político cuestiones de gran importancia: la precariedad laboral, las pensiones, la vivienda, la falta de derechos sociales…

Y es falso que esta huelga no vaya con ellos. Interpelamos directamente al Gobierno Vasco, al Gobierno de Navarra y a las patronales como responsables en su ámbito de haber asumido un modelo que responde a la lógica neoliberal que impera en la Unión Europea y que renuncia a instrumentos financieros y al control público de empresas y sectores estratégicos (Kutxabank, CAN, Euskaltel…)

Les interpelamos muy directamente con nuestras propuestas sobre la RGI y el derecho a la vivienda. Les interpelamos muy directamente cuando les exigimos que complementen las pensiones mínimas hasta alcanzar los 1.080 euros, habiendo un informe jurídico del Parlamento Vasco que lo posibilita. Les interpelamos muy directamente cuando planteamos en el ámbito de la administración que reconozcan por ley a los/as trabajadores/as de las subcontratas públicas el derecho a la subrogación y un salario mínimo de 1.200 euros.

»

---

Pertsonak denon ardura dira, oraingo pentsiodunak, zein etorkizunekoak; bestalde, lan-baldintza duinen aldeko borroka guztiz beharrezkoa da, eta azkenik eskubide sozialak bermatu behar dira.

---

Ezin dugu etsita bizi. Ez dugu zertan inposatutakoa onartu behar, badago beste aukerarik. Oraingo eredu neoliberalaren aurrean alternatibak badaude, arlo guztietan.

Es evidente que esta huelga no les gusta porque les ponemos en evidencia y les obligamos a retratarse.

La clase trabajadora de este país no tiene caja de resonancia. Nuestra tarea empieza por ahí: por romper el silencio, por sacar a la luz pública la injusticia en la que miles de vascas y vascos viven cada día. Conseguir voz y resonancia para, al menos, ser capaces de ver el país tal como realmente es y no como nos lo pintan. La huelga general va a servir a ello, también.

**»Dicen que no hay razones que justifiquen la convocatoria de una huelga general.**

Aquí se ha construido, mediante la ocultación y la propaganda informativa, la idea del llamado “oasis vasco”. Sin embargo, lo que tenemos (basta con observar objetivamente la realidad laboral y social) más que un oasis es, cada vez para más gente, un espejismo. Nos dicen que tenemos la mejor sanidad del mundo, pero vamos a pedir cita al médico de familia y tarda una semana en atendernos; y eso sin hablar de las listas de espera en algunas especialidades o la falta de médicos en otras muchas. Nos dicen que tenemos un sistema educativo puntero pero cada vez hay más alumnos/as en las aulas y mayor fracaso escolar.

Y no lo decimos nosotros. Sus datos, sus estadísticas nos avalan. Estamos a la cola de Europa en protección social: cinco puntos por debajo de la media europea en la CAPV, y en Navarra, todavía peor.

La última encuesta sobre la pobreza y desigualdad social que el Gobierno Vasco ha intentado ocultar, publicándola en plenas vacaciones de agosto, muestra un preocupante incremento de la pobreza en nuestro territorio ¡en tiempos de crecimiento económico! Y con un dato terrible: el 40% de las personas pobres viven en hogares con empleo. Es decir, sufrimos una precariedad laboral creciente, que ha venido para quedarse.

El reparto de la riqueza es cada vez más injusto. Y en este contexto, tenemos dirigentes políticos en las Diputaciones que plantean medidas -siguiendo la estela de Esperanza Aguirre- como eliminar el impuesto de patrimonio y sucesiones. Es evidente para quién gobierna esta gente.

**»Decías antes que es hora de pasar a la ofensiva.**




*El pasado 30 de octubre centenares de personas exigieron en Gasteiz la retirada del proyecto de recorte de la RGI.*

Históricamente, muchas de las huelgas generales han seguido la lógica acción-reacción; hemos ido por detrás, a la defensiva. La reflexión desde 2013 en el seno de las organizaciones que componemos la Carta es, precisamente, la imperiosa necesidad de dar pasos en las propuestas y alternativas, y pasar a la ofensiva.

No podemos vivir en la resignación. Esto no es lo que hay ni lo único posible. Hay alternativa al modelo neoliberal actual en todos los campos: laboral, social, finanzas, energía, soberanía alimentaria... Alternativas que mucha gente todavía desconoce y que estamos visualizando y socializando.

La receta de la Carta Social es clara: radicalidad, politización, propuestas y movilización, partiendo de una oposición clara al actual modelo.

**AGENDA MOVILIZADORA**

■ **El 30 de octubre, ante el Parlamento Vasco**, La Carta Social exigió la retirada de la proposición de ley presentada por el PNV y el PSE para recortar la Renta de Garantía de Ingresos (RGI).

■ **El 16 de noviembre,** en las cuatro capitales de Hego Euskal Herria, manifestaciones en favor de las pensiones.

■ **En diciembre,** movilizaciones en favor de unas condiciones de trabajo, unas pensiones y una vida dignas.

■ **30 de enero, HUELGA GENERAL.**

# Hamaika arrazoi grebarako

**■ 2011 ETA 2013KO ERREFORMETAN ONETSITAKO PENTSIO-MURRIZKETAK INDARGABETZEA:**

*Erretiroa 65 urte betetzean.

*Erretiro aurreratua 61 urte betetzean, 30 urteko kotizazio-aldia edukiz gero. Koefiziente murriztaileak arintzea.

*Erretiro-adina jaistea beste sektore batzuetara hedatzea; hau da, bereziki nekagarriak eta arriskutsuak diren sektoreetara (esate baterako, garraio-sektorea).

*Pentsioa kalkulatzeko 15 urteko aldia kontuan hartzea.

*Pentsioen eroste-ahalmena bermatzea (gutxienez KPIren pareko igoera).

*Pentsioen jasangarritasun-faktorea kentzea.

**■ BESTE NEURRI BATZUK PENTSIOEI BURUZ:**

*Gutxienezko pentsioa 1.080 eurokoa izatea.

*Pentsioen sistemaren finantzazioa bermatzea, kotizazio sozialen eta zergen bidez.

*Lanaldi partzialeko kontratuetan kotizazioak zenbatzerakoan zigorrik ez aplikatzea. Egun bat lan eginda, egun bat kotizatuta.

**■ ZAPATERoren ETA RAJOYREN LAN-ERREFORMAK BERTAN BEHERA UZTEA:**

*Hitzarmen kolektiboen indarraldiaren aurrera-eragin mugagabea.

*Lurralde-hitzarmenen aplikazioa lehenestea estatu-hitzarmenen aurretik.

*Esparru beheragoko hitzarmen batek esparru goragoko baldintzak okertzerik ez izatea.

*Lan-eskubideen murrizketak lehengoratzea.

**■ BESTE NEURRI BATZUK ENPLEGUARI ETA PENTSIOEI BURUZ**:

*Gizonen eta emakumeen arteko soldata-arrakala eta pentsio-arrakala ezabatzea.

*Gutxieneko soldata hilean 1.200 eurokoa izatea.

*Enplegu egonkorra sustatzea eta oraingo kontratazio-iruzurra zigortzea.

*Lanaldia 35 ordura murriztea, soldata gutxitu barik.

*Lanaldi partzialak kentzea. Horren eraginpean emakumeak egon ohi dira.

*Azpikontratetan enpleguaren subrogaziorako eskubidea bermatzea.

*Zerbitzu publikoetako murrizketak lehengoratzea, eta gehiago garatzea.

*Kontratazioan diskriminaziorik egingo ez dela bermatzea; sexua, jatorri-lekua, ideologia, sexu-nortasuna, aniztasun funtzionala edo ekonomia-jarduera kontuan hartu gabe.

*Prekarizazio-formula oro kentzea kontratuetatik (etxeko enplegatuen araubide berezia, sasi-autonomoak, uberizazioa...).

*Klausula sozialak ezartzea administrazioko azpikontratetan.

*Lanera bizirik itzultzeko eskubidea. Lan Ikuskaritzako plantillak ugaltzea, Europako Batasunekoekin parekatu arte, eta lan-istripuen eta lanbide-gaixotasunen aurkako plan zorrotz bat egitea.

*Etxeko lanak eta zainketa-lanak duintzea, eta gainerako enpleguetan dauden eskubide berberak ematea.

**■ ESKUBIDE SOZIALEN BERMEA:**

*Menpekotasun-egoeran dauden pertsonei laguntza-zerbitzu publiko, unibertsal eta doakoa legez bermatzea.

*DSBE eta BE %100ean parekatzea LGSarekin, eta LGS %50 igotzea bi pertsonaren ohiko unitateetan, eta beste %50eko igoera bat 3 edo pertsona gehiagoren unitateetan.

*Alokairu sozialeko etxebizitza bat eskuratzeko eskubidea legez bermatzea, EHko Eskubide Sozialen Kartaren Legegintzako Herri Ekimenean ezarritako baldintzetan.

**■ LAN HARREMANEN ETA BABES SOZIALAREN BERTAKO ESPARRUA:**

*Euskal Herriko langileek eskubidea izango dute pentsioen sistema publikoa eta pentsio duinak bermatzeko modurik onena erabakitzeko.

*Lan-harremanetarako gure eredua erabakitzeko eskubidea onartzea, eta baita negoziazio kolektiborako gure esparrua ere, kanpoko esku-sartzerik izan gabe.

**■ EAEKO ETA NAFARROAKO ERAKUNDEAK PREMIATZEA ZEINEK BERE ERANTZUKIZUNAK HARTZERA, ETA BEHARREZKO NEURRIAK HARTZERA; AIPATURIKO BIDETIK AURRERA EGITEARREN. ESKATZEN DIREN NEURRIAK HONAKO HAUEK IZAN DAITEZKE:**

**1.** Gutxieneko pentsioa 1.080 eurora legez igotzea, Eusko Jaurlaritzaren eta Nafarroako Gobernuaren aurrekontuen kontura.

**2**. Enplegu publikoari dagokionez (zuzenekoa nahiz azpikontratatua): gutxieneko soldata 1.200 eurokoa izatea, eta gehieneko lanaldia 35 ordukoa. Kasuan kasuko lurraldeko sektore-hitzarmena aplikatuko delako bermea emango da, eta baita beste klausula sozial batzuk ere.

**3**. Eskubide Sozialen Kartak sustaturiko Legegintzako Herri Ekimena, DSBE eta etxebizitza-eskubidearena, onestea.

**4**. Lege bat onestea, lan-arloko soldata-arrakalaren, diskriminazioaren eta indarkeria matxistaren aurka.

**■ HALABER, EAEKO ETA NAFARROAKO PATRONALARI** eskatzen diogu lan-baldintzak prekarizatzeari uko egiteko, eta baita dokumentu honetan jasotako lan-eskakizunak onartzeko ere.



# Euskararen metrika gozamenaren neurrira

NAGORE URIARTE

Onintza Enbeita eta Andoni Egaña bertsolariek euskaratik eta euskaraz gozatzen eta gozatu arazten jantzi dute txapela. Plaza txikitan aritu dira, 14.000 lagunen aurrean, eta orain ALDAko bi lagunen aurrean. Bertsotan bezala solasean ere metrika egokian aritu dira. Plaza honetan ere badakite ondo errimatzen.

Onintza Enbeita Maguregi Muxikako baserri batean jaio zen, barazki eta bertso artean. Konturatu gabe, ereiten hasia zen bertsolariaren hazia. Umetan errimak asmatzea jolas hutsa zen, aitite Balendinekin komunikatzeko modua. Aititerekin olgetan, bertsolariarekin jolasean. Uzta ona jaso zuen. 70 bat kilometrora, Zarautzen, bertsogintzaren olatuak astindua eman zion Andoni Egaña Makazagari. Xabier Amurizak Euskal Herriko txapela jantzi zuenean argi esan zion bere buruari: “nik hori egin nahi dut! Esan eta egin”. 1993an EHko txapela jantzi zuen. Beste lau etorri ziren segidan, harik eta Maialen Lujanbiok lekukoa hartu zion arte, Onintza Enbeita miresmenez begira zuela. Miresmenetik garaipenera. 2018an aitite Balendinek txapela jantzi zion Onintzari Bizkaiko txapelketan, baina makilari esku askok eutsi zioten: sabaia apurtu zuten emakume guztiek.

### »Onintza, Andoni, biak izan zarete txapeldun. Zuk Andoni zure lehenengo txapela Lazkao Txikiri eskaini zenion; Onintza, zuk zurea familiari... Zer-nolako garrantzia dute memoriak eta erreferenteek?

**A:** Nik, adibidez, erabakia neukan 93ko txapela lehengusu bati dedikatzea, auto istripuz hil zen Iñigo *Bartol*ori, Argiakoa. Orduan Euzkitzek egin zuen bigarrena eta Baserriri eskaini zion. Hor esan nuen: “Andoni, error! Hemen ezin duzu eskaintza intimo hori egin, Lazkao Txiki aurten hil da... hari kantatu”. Eta azken momentuan inprobisatu nuen bertsoa.

**O:** Egoerak asko markatzen du. Bizkaiko txapela 2014an irabazi izan banu eta Kristina Mardarasek jarri izan bazidan txapela, nire burutik beste gauza batzuk pasatuko ziren: ze neska gutxi ginen, zenbat lan egin zuen Kristinak emakumeoi plazak emateko, bera izan zela lehenengo emakumea txapelketa batean parte hartu zuena... Buruan gauza asko nituen, baina osabak txapela jantzi behar zidala ikusi nuenean nire borroka pertsonala etorri zitzaidan burura: Onintza Enbeita izatetik Onintza izatera pasatzea lortu nuela, eta orduan ulertu nuen ezinbestekoa zela bertsoa Aitite Balendin aipatzen hastea. Oso berezia izan zen makila hartu nuen momentua. Txapela txapela da, bai, baina hegemonia makilak sinbolizatzen du. Zu zara Bizkaiko lehenengo emakume txapelduna eta makila daukazu eskuetan. Hor sentitu nuen garaipen kolektiboa zela. Orduan gogoratu nintzen Kristinarekin, Alaitz Areitiorekin, inguruan izan ditudan emakume askorekin eta egin behar izan duten borrokarekin, nahiz eta inoiz ez diren periodikoetako lehen lerroetan egon.

**A:** Hori ulertzekoa da. Niretzat makila gauza folkloriko bat izan da.

### »Emakumea eta bertsolaria ikusi dute, ordena horretan?

**O:** Bai, eta erreferente asko izateak gauzak erraztuko dizkie belaunaldi berriei. Maialen Lujanbio ni baino hiru urte zaharragoa da bakarrik eta guretzat erreferentea izan da, horrek islatzen du Andoni edo aitite Balendinen belaunaldian emakumeak falta izan zirela, edo behintzat, publikoki ez direla ikusi. Gure erreferente guztiak gizonak ziren eta gizonengan gauza ezberdinak aurkitu ditugu: freskotasuna, sakontasuna... Maialenekin erreferente bat eraiki genuen: kolektiboaren ordezkaria, emakumeon bertsolaria... Gaur egun erreferente asko eta ezberdinak ditugu, eta polita da hori.

### »Andoni, zuretzat, ordea, makila jasotzea gauza folklorikoa izan zela esan duzu. Esanguratsua da hain ezberdin ikustea...

**A:** Bai, ni gizonen neutraltasunetik ari naiz makila jasotzen, gizonok ez daukagu makilaren beharrik agindu dezakegula sinisteko, ez nuen beharrik nire artasunetik. Nik bilakaera ezagutu dut. 92ko udaberrian Maialen lehenengo aldiz jaialdi batera etorri zen gurekin. Peña, ni, Maialen eta Estitxu Arozena, non eta Hondarribian. Maialen 15 urteko neska zen. Jaialdiaren ondoren bazkaltzera joan ginen eta bazkalostean bertsotan egin genuen soziedade batean. Grabagailu bat atera zuten eta esan nien: “grabatu, grabatu, hau inportantea izango da eta!”

**O:** Eta asmatu zenuen! Txapela irabazi eta hurrengo egunean jaso nuen mezuetako bat Igor Elortzarena izan zen: `Gehien gustatu zaidana izan da da nola jaso duzun makila eta nola kantatu duzun azken agurra txapeldun baten moduan´. Ilusio handia egin zidan bere mezuak. Ez dakit nola baina eutsi nion negarrari azken bertsoan.

### »Txapeldun batek ez duelako negarrik egin behar?

**A:** Bertsotan ondo egiten da emozionatuta bezala baina emozionatuta ez da ondo egiten bertsotan. Publikoari sinistarazi behar diozu oso emozionatuta zaudela zu hain emozionatuta egon gabe, komunikazioaren mesedetan. (Barreak)

**O:** Baina egia da Euskal Herrian paralisi emozional handia dagoela, barrea eta negarra oso ondo neurtzen dira, eta neurtzen ez jakitea ere desegokia da jende askoren begietara. Muga horietan ere bizi zara espazio publikoan bizi zarenean.

### »Ba gustatuko litzaidake Egaña ere emozionatuta negarrez ikustea, zergatik ez?

**A:** Malkoren bat isuri izan dut eh! Egia da paralisi emozional batean bizi garela, baina ELAk deituriko »



elkarrizketa batean emozioez ari gara nagusiki joan den ordubetean. Batzuetan *cabroncetea* izan behar da. (Barreak).

**O:** Onintza etorri delako! Bestela egongo zineten hemen proletargoaren lan-baldintzen inguruan bueltaka. Sozialki, eta gure gatazka politikoa gainditzeko, gure gatazka emozionalak ere gainditu behar ditugu. Herri honetan azken 50-60 urteetan gertatu diren gauzek markatu dute gure izateko modua. Ez da kasualitatea gerra galdu zuen belaunaldi oso bat isilik hiltzea.

**A:** Horrekin ados.

**»Andoni, 86ko finalean, zure lehen finalean, ikastolentzako D eredua aldarrikatu zenuen. Orain beharbada beste modu batera planteatuko zenuke?**

**A:** 86an euskararen legeak hiru urte zeuzkan, D eredua abian jartzea garrantzitsua zen garai hartan. Orain fase hori gaindituta dago. Hezkuntza sistemak bide berriak topatu behar ditu, benetan nahi badugu euskara izatea tresna baliogarria denontzat, denerako. Informatzeko balio digu, baina emozioak azaltzeko ez digu balio. Murcian gazteleraz burla egiten ez dute irakatsi behar. Gure aitaren mehatxua beti zen: “bigarrena paretak emango hik!”. Ez zuen inoiz betetzen, noski.  Gaur egun *“déjame en paz o te doy dos hostias”* izango zen. Asko galdu dugu. Hizkuntza batean mingaina ez badaukazu aski zorrotz, bestera joko duzu. Zorroztu ditzagun mingainak, bestela euskarak informatzeko balioko du, eta gainerako guztirako, hau da, inportanteenerako, beste hizkuntzek balioko dute.

**»Bertsolaritzak apurtu du hori? BEC beteta euskaraz modu ludikoan gozatzen...**

**A:** Bai, gainera adimenaren alde. *Reggaeton*-ak eta *perreo*-ak ez naute hainbeste kezkatzen, ez nagusiki gaztelaniaz direlako, errepikapen soila direlako baizik, horrek adimenaren kontra jotzen duelako. Leloa kontzeptuak ondo jarrita dauka izena. Zenbat eta gehiago errepikatu, tontoak gero eta gehiago indartzen dira. Errepikapenera ohitzen den gizarte bat galbidera doa.

**O:** Lehen euskaraz irakatsi eta euskal mundura erakartzen zen, orain ez.

**»Bertsolaritzatik bizi daiteke?**

**A:** Bai baina urtean 160 saio egin behar dituzu langile arrunt baten zifratan mugitzeko.

**»Andoni zuk esan zenuen: “Bizitzeko beste da, ez rock-eko izar baten mailan, baina irakasle bat bezala bai”. BEC betetzea, ordea, bada rock-eko izar baten parekoa...**

**O:** Igual desproportzionala bestea da.

**A:** Gurea proportzionala da, BECen kantatu eta hurrengo egunean 40 pertsonen aurrean Arantzazuko soziedade batean kantatuko duzulako. Orduan berehala jaisten zaizu izar sentitzeko arriskua.

**O:** Kultura ezin da dirutan bakarrik neurtu. Baina nik erabaki hori hartzeak ezin du profesionalki bertsolaritzatik bizi nahi duenaren erabakia izorratu. Nik ezin dut esan prest nagoela ez kobratzeko edo erdia kobratzeko ez dudalako dirua behar, egin dezagun denon bizi baldintza duinen alde.

**A:** Bertsolaritzan badago halako sentimendu kolektibo bat, badago Bertsozale Elkartea. Bertsolaritzak zerikusi handiagoa dauka artisautzarekin artearekin baino. Artisautzarekin industrian sartu nahi dugu? Nik behintzat ez. Egia da badagoela bertsotatik bizi ezin duen jendea urtean 20 saio dituelako gehienez, eta, beraz, beste lan bat egin behar duena. Eta inori ez zaio okurritzen beste lan hori debaldekoa izatea eta bertsotan beti kobratzea. Zu Zarauzko udaleko langilea bazara alkantarrilak aldatzeagatik beti ordainduko dizute baina auzoko festan debalde kantatzen duzu. Ostras! Kultura debalde saltzen da eta alkantarillak beti kobratzen altxatzen dira?

**O:**  Bertsotan hastean badakit ez naizela Egaña, baina nire auzoko jaietan hiru bertso botatzen baditut momentu horretan okupatu dudan espazio-denbora horrek balio behar du Andonik BECen okupatzen duen espazio horrek beste.

**A:** Noski, kulturaren mikroklimarako hori bestea bezainbeste garrantzitsua delako. Anekdota bat: Uztapide joan zen, txapeldun zela, gazte batekin bertsotan herri batera. Kobratzerako garaian Uztapideri 200 bat pezeta eman zizkioten eta gazteari 100. Eta Uztapidek esan zien: "honeri eman nik aina, nik aina lan egin du eta gehiago kosta zaio!" (Barreak). Egia da pixka bat injustua ere badela denek berdin kobratzen badute beti batzuei deituko dietelako. Larriagoa da nik 85ean lanean hasi nintzenean kobratzen nuena eta orain gure alabak kobratzen duena konparatzea. Hori bada mingarria.

**»Horregaitik ere, greba orokorra deitu berri du EH Eskubide Sozialen Kartak...**

**A:** Nik 30 urterekin lortu nuen eta gero utzi nuen plaza finkoa orain 25 urtekoek nahi dute... Agintariek kristoren aurpegia daukate.

**O:** Nola kudeatzen dira lanpostu publikoak, azpikontrataz azpikontrata, kaleratzeak zenbat merkatu diren... Errespetua galdu zaio langileari. Badakit debaluatu eta desitxuratu dutela greba, baina besterik ez duenak greba egin beharko du.

**A:** Eta hemen ere bai, eta hemen batez ere, emakumeen egoera aipatu behar da. Prekaritatean dagoen profila emakumezkoena da gero eta nabarmenago.

**O:** Sektore prekario gehienak feminizatuta daude eta hori aldatu behar da.

**»Masa kritikoa badago egun?**

**A:** Masa kritikoa badago, baina betiko akatsarekin: matxakatuen daudenek dute aukerarik gutxien irteteko. Oraindik ere klase ertaina garen zuriak joango gara euren abangoardia hartzera. Hori da gure ezkerraren azken mendeko historia. Ezinegona sortzen dit hori konpondu ezinak.

**O:** Batzuek ezin dute permititu greba egitea eta beste batzuek baldintza onak dituztenez ez dute greba egin nahi. Elkartasuna gauza inportantea da eta urteekin galtzen goaz. Gure prentsaurreko eta agerraldi guztietan gaude klase ertaineko zuri pila bat eta badakigu Euskal Herrian lanean matxakatuen dagoen jendeak ez daukala gure azal kolore berdina, ezta gure aukera berdinak ere. Mikrofonoa eurei eman behar diegu. Gauza batzuk baloratzea ahaztu zaigu. Orain dela 20 urte pentsaezina zen eskolak edo jangelak grebara joatea eta gurasoek grebara doazen langileen kontra joatea.

**»Hezkuntza eskubidea greba eskubidearen gainetik?**

## ANDONI EGAÑA

**"En este momento, los sindicatos son más necesarios que nunca porque la brecha social es más grande que nunca. La cuestión es cómo lideramos y gestionamos esta lucha"**

**"Todo se ha individualizado. Ahora la cultura se consume de forma íntima. Antes íbamos al cine en grupo, ahora cada uno se encierra en su cuarto, con su ordenador, ni siquiera se reúne en el salón de casa"**

**"ETB era en euskera y luego crearon ETB2, en castellano. De repente empezaron a llamarlos ETB1 y ETB2. Un simple cambio en la nomenclatura modificó toda la esencia de la televisión pública vasca"**

**"Siempre he preferido el micrófono de palo, cantar con el de mano siempre me ha hecho sentir desnudo"**

**"Reconozco que igual he actuado con algo de paternalismo con mis compañeras bertsolaris más jóvenes que yo. Tengo ganas de aprender"**

**O:** "Ez daukat umea norekin utzi" esaten dute batzuek. Orduan zuk nahiago duzu zure umearekin eguna pasatzen duen, jaten ematen dion eta zaintzen duen pertsona hori prekarizatuta egotea egun batean zuk lanordu batzuk galtzea baino? Edo feminizatutako sektoreez hitz egin dugula... zuk zure gurasoak erresidentziara eramaten badituzu erruduntasun sentimendua izango duzu, baina Ekuadorretik etorri den pertsona bati 600 ematen badizkiozu zaintzeagatik inork ez du zalantzan jarriko. Hori krimen bat da.

**»Zalantza daukat gizartearen zati batek ez ote duen erosi Andoni arrain saltzailearen eta esfortzuaren diskurtsoa...**

**A:** Nik Arriagan kantatu nuen ni nintzela Andoni. (Barreak). Orain *emprendedor* hitza dago modan. Evak jan zuen sagarra da *emprendedor* izatea gizarte honetan. 50 urterekin hilabete oporretan egotea eta berea litzatekeen lana beste bati ematea gutxiago ordainduz.

**O:** Lotsagarria da. Hor Diputatu Nagusiak baloratu zuen pertsona horrek lan bi egin behar izatea batekin ez daukalako nahikoa bizitzeko. Esfortzuaren diskurtso horrek tranpa bat dauka. Nik ditudan aukerak eta Ekuadorretik datorren emakume batenak oso ezberdinak dira. Ondo dago esfortzuaren diskurtsoa saltzea denok badugu abiapuntu bera.



A: Oraingo larrialdia zertan datza? Ez bakarrik Ekuadorreko emakume horrek ez daukala gure aukera berdinik, baizik eta 22 urteko ia edozeinek ere ez dituela. Hori da gizartearen hondamendia.

O: Eta azken urteotan ilararen azkenenekoaren sindromea garatu dugu. Zain egotera ohitu gara: aukera hobearen zain. Eta norbaitek ilara horretan aurrea hartzen badigu bentanillan dagoenaren kontra joan beharrean, ondokoaren kontra goaz.

## »Langileak aurrez aurre jarri gaituzte?

O: Bai, eta bada garaia bentanilla lehertzeko.

A: Peña bertsolaria kafe makinen mantenimenduan aritzen da. Krisia hasi zenean esan zidan: "hi, Antonio, krisia ondo etorriko zaigu gauza batzuetarako. Ni joaten naizen enpresetara kafe makinaren ondoan beti komentarioak krisia hasi baino lehen entzuten nizkian elkarren kontrakoak: hark lan gutxiago egiten du... Eta krisia hasi zenetik jefeen kontra hasi ziren". Borroka antzuak dira, RGI kobratzen duenaren kontra egitea bezala...

O: Hor balego bezala arazoa, eta arazoa ez da RGI. RGI-a jaso behar duen jendea daukan sistema batek porrot egin du, sistema hori ez delako gai jendeari bizitza autonomo eta duin bat bermatzeko. Kontua ez da pertsona horrek ez duela kobratu behar, baizik eta besteon aukera berdinak izan beharko lituzkeela berak nahi duen bizitza edukitzeko.

A: Eta bitartean heldu eskutik... RGI existitzea ez da tristea, existitu beharra da tristea.

## »Sindikatuok nola ikusten gaituzue?

## Kritikatzeko aukera duzue orain...

A: Matxakatuta zaudenean hurbilen sindikatua daukazu. Sindikatuak beharrekozkoak dira, psikologoak baino gehiago. (Barreak).

O: Bueno horiek ere behar dira. (Barreak). Sindikatuek historikoki kolektibizatu dute langilearen arazoa. Balio izan dute esateko: arazoa ez naiz ni, arazoa sistema da. Protagonistak izan behar dira langileak eta sindikatuek asmatu behar dute protagonismoa beti langileei ematen.

A: Momentu honetan igual inoiz baino beharrezkoagoak dira. Ezberdintasun sozialak gero eta handiagoak dira. Lidergoa nola kudeatu da klabea.

O: Orain 30 urte greba orokorra zen eta bakoitzak bazekien zeintzuk ziren bere arrazoiak grebara joateko. Orain, ez baduzu sektoreka egiten eta gauza zehatzak aldarrikatzen, atxikimendua ez da hain erraza izango. Nik eta zuk grebarako ez ditugu arrazoi berdinak izango, baina zuk zurean eta nik nirean arrazoi nahikoa ditugu grebara joateko. Berdin zait metalekoa joango bada konbenio hobe baten alde edo ni joango banaiz kulturaren balorizazioaren alde edo emakumeon eskubideen alde. Baina ez daukagu bakoitzak grebarako nahiko arrazoi?

A: Gauza harrigarriak gertatzen dira. Esate baterako, orain gazte jendea harrapatzeko *totem*-a ez da Euskal Herria edo langileria izango, aldaketa klimatikoa baizik. Klima larrialdiak batzen ditu orain gazteak. Kristona sartzen ari zaizkigu ideologikoki.

## »Kapitalismo berdea, adibidez?

A: Noski. Errudunak denok gara diote... Gezurra!

O: Baina kapitalismoak dena kapitalizatu nahi duelako. ZARAk `ni naiz feminista´ kamisetak ere saltzen ditu! Nola ez du kapitalismoak elikadura ekologikoaren aldeko apustua egingo ikusten badu hor merkatu bat irekitzen zaiola?

A: Itsasoa plastikoz beteta ikustea negargarria da, bai, baina goazen soldatei buruz hitz egitera.

O: Baina gazte batek esango dizu: zertarako soldatak planetak eztanda egingo badu hemendik hamar urtera?

A: Ni seguru nago soldatetan bestean baino.

O: Hausnarketa bat egin behar dugu: Euskal Herrian urteetan ibili gara gatazka batzuetan itsututa. Normala da 15 urte dituen bat kliman zentratzea. Guk badakigu gazteei esplikatzen klima aldaketan beste faktore asko badaudela? Azaltzen duten lema horren atzean gezur bat dagoela? Hitz egiten diegu gazteei kapitalismoaz, heteropatriarkatuaz... Hitz batzuk erabiltzeak beldurra ematen digu.

**A:** Ez, ez dakigu. Baina horretan asmatu behar dugu.

**A:** Gaur egungo gazteen konpromisoa euren buruarekiko da. *El botox vale más que el voto.*

**O:** Hori da kapitalismoak irabazi digun gauza inportante bat.

### »Bitartean militantzia diluitu da ala tokiz aldatu?

**A:** Nik uste du diluitu egin dela. Gure aita Zarauzko soziedade ziklistaren buru izan zen 90 zeuzkan arte. Orain bileretara hiru ez dira joango.

**O:** Gaur egungo gazteak ez dira konprometitzen? Bueno, hori ere ez da horrela. Militantziak balioa galdu du norbere buruaren zaintzaren alde. Geure burua zaindu behar dugunaren mezua saldu digute eta ez dakit ondo interpretatu dugun. Ardurak hartzeko beldurra dago.

**A:** Asko indibidualizatu da dena. Kultura ere intimoki kontsumitzen da orain. Lehen zinea zen audiobisual bakarra eta bere kontsumoa kolektiboa zen. Orain bakoitzak bere ordenagailuan ikusten du, bere gelan, ezta etxeko salan ere. Joera hori denera zabaldu da. Militantziak kolektiboa eskatzen du, lanak banatzea, eta hori ez dago modan.

### »Biak zarete zutabegileak Berrian, bertsolariak... Sortu eta sortu baina zertarako sortu?

**A:** Zoriontsua izateko, nik behintzat. Produzitzailea naiz ni, ez zait gustatzen bitartekariekin ibiltzea, horregatik ez daukat mobila, ez da asoziala izatea, beste gauza bat da, langilea izan, punto, ez dut gehiago nahi; kriston helburua iruditzen zait langilea izatea gizarte honetan.

**O:** Zoriontsu izateko balio du sortzeak, baita zerbait aldatzeko ere. Bada arma interesantea.

**A:** Ezer aldatzeko balio ez duela konturatzen bazara ere, gutxienez ona da zure zaurientzat. Arima bizkiren batzuk egongo dira hortik.

### »Euskal prentsan zutabegile aritzea politikagintza egiteko beste modu bat da?

**O:** Klaro, sinisten badugu benetan pertsonala politikoa dela.

**A:** Bai, sormenak balio dizu zure esperientzia pertsonaletik eta zure ideologiatik datorkizun printzak pixka bat organizatzeko.

### »EITBn ere aritu zarete. Askok Espainiako telezaborra kopiatzea leporatzen diote... beste askok euskaraz hori ere behar dela defendatu...

**A:** Egungo telebista, euskarazkoa, hautu politiko-ideologiko baten ondorioa da, eta uste dut programa

## ONINTZA ENBEITA

**“Cuando gané la txapela entendí que mi lucha personal había dado sus frutos: había pasado de ser Onintza Enbeita a ser sólo Onintza”**

**“Para mi fue muy especial cuando cogí la makila. La txapela es la txapela, sí, pero la hegemonía la simboliza la makila. Entonces sentí que era una victoria colectiva, de todas”**

**“Todavía hoy en todas nuestras ruedas de prensa la mayoría somos blancos de clase media, cuando sabemos que los colectivos más machacados no tiene nuestro mismo color de piel”**

**“En euskera también tiene que tener cabida la telebasura. Quien quiera ver la televisión en euskera tiene derecho a poder ver lo que quiera, pero en euskera. Hace falta inversión”**

**“Hemos avanzado, sí, pero aún hoy las mujeres representamos el 20% en las plazas, y eso tiene su reflejo en la final”**

batzuetan, aterki programak direnak zaparrada etortzen zaienerako, hutsaltasuna nagusitu dela. Eta hutsaltasuna ere ondo edo gaizki egin daiteke, eta nahiko gaizki egiten ari dira hori ere.

**O:** Zaborra ere egin behar da euskaraz. Telebista euskaraz ikusi nahi duen pertsona batek aukera izan behar du euskaraz ikusteko ikusi nahi duen hori. Horrek esan nahi du euskaraz inbertitu behar dela, programak egin, onak eta txarrak, baina egin. Baina arazo printzipala ez dator edukietatik bakarrik; arazoa da telebista kate bi sortu zirela, eta bat sortu zutela gaztelaniaz euskaldunak ez zirenak euskarara hurbiltzeko, eta kontrakoa egiten ari garela: euskaldunak gaztelaniara eramaten ari gara.

**A:** Izen aldaketa soil bat izan zen, inor konturatu ez ginena. Hasieran ziren ETB (euskaraz) eta ETB2. Iritsi zen egun bat ETB1 eta ETB2 deitzen hasi zirena. Lehenengo ETB eta ETB2 zirenean garbi zegoen euskaldunon hizkuntza eta garapenerako tresna zela, eta ETB2 sortu zela erkidegoan zergak ordaintzen zituzten erdaldun elebakarrek eskubidea zeukatelako hemengoaren berri izateko ere. Horretarako Telenorterekin nahikoa zen. Egun batetik bestera ETB1 eta ETB2 deitu zieten, inor ez ginen enteratu, baina nomenklaturatik izaera etorri zen. Eta ETB2ra ohitu direnak ETB1ekin ez dute euskaraz ikasiko, inbidiagatik ez behintzat, eta ETB1eko ikusle pila bat ETBn erderaz jartzen dituzte. Hasierako helburuaren kontrakoa ari gara lortzen. »



**O:** Erreferentzia aldetik ETB2 Espainia da. Gaztelaniaz eman behar dugu munduaren berri? Inbertitzen den dirua lotsagarriki askoz gehiago da ETB2n. Euskaraz dena mila aldiz errepikatzen da: mariatxiak, Abel Barriolak irabazi zuenekoa... Niri *reality*-ak ez zaizkit gustatzen baina zergatik ezin da egin *reality* bat euskaraz? Bere garaian egon zen eta funtzionatzen zuen, audientzia ona zeukan. Zer egin zuten? Karibera eraman, dirua jarri eta gaztelaniaz emititu. Eta ez dakit zenbat euskaldun ari diren orain Kariben lehia absurdo batean, gaztelaniaz.

**A:** Eta gero gainera Patxi Alonsok irabazleari esaten dio: ¡A ver Izeta, cántame unos versos, suéltate! Eta pentsatuko du prestatuta daukan bertsoa dela Sustrai Colinak BECen bat-batean botatzen duenaren antzeko zerbait, erdal komunitatearentzat. Dirua produktora horietara doa.

**O:** Guk Gure Doinuak egin genuen. Euskal erreferente pila bat agertu ziren: Benito Lertxundi, Anje Duhalde, Maite Idurin, Ituño, Gari... Gure herria kudeatzen ari den jendeak ez daki hori baloratzen. Audientzia baxua izatea leporatzen dizute, baina ez dute baloratzen lau ordu izan dituzula Lertxundi gauza interesanteak esaten edo Gari, sekula elkarrizketa batean esan ez dituen gauzak esaten. Ez da baloratzen euskarazko informazioa ez delako jarraitu. Ze pertsonai interesatzen zaizkio ETBri? Eta igual ez didate berriro deituko baina hau esan egin behar da.

**A:** Baina ondo ari zara. (Barreak).

**O:** Munduaren berri euskaraz eman beharko genuke, eta munduari eman beharko genioke gure mundua, euskaraz. Ez dugu egiten ez bata ez bestea. Nekatuta nago *Vascos por el mundo* ikusteaz. Urteak dira euskaldunok munduan gaudela!

**A:** ETB1ek lortzen du niretzat naturalak eta interesgarriak diren gauzen gama zabal hori ahaztea eta beste eskinetara joaten da. Gama zabala da, ba *Vascos por el mundo* hori nire interesen eskina batean dago eta artzain-txakurren lehiaketa bestean.

**O:** Zuk uste duzu bertsolaria naizelako interesatzen zaidala txakur bat ardien atzetik? (Barreak). Hori gaztelaniaz ez dute ematen.

## »Zer esango zenieke gaur egun umorea zentsuratzen dela esaten dutenei?

**O:** Botere harremanetan oinarritutako gizarte batean bizi gara, gai izan behar dugu ikusteko guk ze esparrutan daukagun boterea beste esparru batzuekiko. Hori ikusteko gai ez denak zentsura bakarrik ikusiko du beti.

**A:** Edozein kirtenkeri ezin da onartu adierazpen askatasunaren izenen, baina zein da onartu daitekeena eta zein ez? Garaiekin marra gorriak aldatzen doaz. *La Manada* adibidez. Nazka ematen du, baina gero eta gehiago ikasten ari naiz eta kontzienteagoa naiz %99an antzekoa naizela. Gero eta gehiago esaten diot neure buruari: `Andoni, %99an horien antzekoa haiz, kontuz ibili hire %1 hori gordetzen´. Horretarako baliogarriak dira marra gorriak nire buruarentzat. Ez gaude oso urruti haiengatik, eskerrak %1 hori badugun, baina zeure buruari planteatu behar diozu.

**O:** Nik ere baditut nire kontraesanak. Kontua da, umoreaz ari garela, geure kontraesanei ere umorea egin dezakezula. Zergatik izan behar du modu bakarra ustez hegemonikoak diren ezaugarri fisikoei barre egitea? Nik neure buruari barre egin ahal diot publikoan esanda: `oso ondo dago ongi etorri errefuxiatuak baina ze ondo bizi naizen ni hemen bakarrik 200 metroko baserrian´. Nire kontraesan handi bat plazaratzen ari naiz, eta neure buruari barre egiten,neure pribilegioak aitortuz. Kode konpartituak beste modu batera eraiki behar dira, %1 horrek hor egon behar du.

## »Orain arteko bertsolaritzaren ikerketan bertsolaritza jardun dialektiko bezala aztertu da, Uxue Alberdik gorputzaz eta generoaz ere hitz egiteko beharra aldarrikatu zuen arte. Nola hartu duzue Kontrako eztarritik lana?

**A:** Ikasteko gogoz, niretzat gauza asko berri xamarrak dira, baina adibidez, gorputzaren kontzeptuarena, orain arte neure buruari esaten nion: daukadana daukat eta listo. Horrela funtzionatzen nuen nik. Niri adibidez oindun mikrofonoa gustatzen zait, eskukoarekin ez dut gustura kantatzen zutik banago. Kontziente naiz oin fin horrek biluztasuna galarazten didala. Eskuko mikroarekin edo Michael Jacksonen diadema horietako



batekin gaizki sentitzen naiz bertsotan, ematen du beti brageta irekita daramadala. Hori askotan sentitu dut. Gorputza hori da? Hala bada, sentitu izan dut, bai. Gauza askotan insensible xamarra naiz, edo ikasi dut izaten. Liburuaz eta liburuaren premiaz ez daukat zalantzarik, ikasteko modua da.

### »Andoni, interpelatua edo identifikatua sentitu zara?

**A:** Bai. Ni gizonezkoa naiz, neutrorik ez dago. Zapaltzaile naiz gizonezko naizen aldetik; kontziente naiz horretaz.

**O:** *Respuesta correcta*. (Barreak).

### »Zertan identifikatu duzu zeure burua?

**A:** Bertsolari emakumezkoekin izan dudan harremanean igual gurasokeria handiz jokatu dut gazteagoak zirelako, igual paternalista izan naiz.

**O:** Uste dut hasiera batean bertso kide batzuk interpelatuak baino erosotuak sentitu zirela eta horrek pena ematen dit. Niri ez zait interesatzen liburua atera eta gero Andonik bere burua zigortzea edo torturatzea, interesatzen zait esatea: “ba igual nik ere hau egin dut, ba berriro ez dut egingo. Saiatuko naiz gure arteko harremanak orain beste kode batzuetan eraikitzen”. Pertsonalki, Uxueren proposamena jasotzean argi neukan parte hartuko nuela, uste dut tokatzen zaigula bizi izan ditugun gauza batzuei buruz hitz egitea. Liburua maleta bat bide bazterrean uztea bezalakoa izan da. Baina plaza plazer handitik ere bizi izan dut eta beste bertsolariekin izan ditudan harremanak ere askotan plazerrazkoak izan dira, zentzu zabalean eh!

**A:** Ba ni ez naiz gogoratzen... (Barreak).

### Uxuek liburuan egiten duen galdera botako dizut Onintza: emakume izateak eragin al dizu bertsotan egiterako orduan?

**O:** Niretzat inposiblea da ez eragitea. Irakatsi ziguten bertsotan gorputza ez dela inportantea, dena buruan dagoela, baina denborak erakusten dizu gorputza hor dagoela. Eta Andoni mikrofono palo bat ez daukanean deseroso sentitzen bada, pentsa ezazu nola sentitzen ginen gu agertokira eramaten zutenean gorputz ezberdin bat, ez dakit zenbat begik epaituko zuten gorputz bat, eta gainera zu kontzientea zarenean gorputz hori sartzen dela kanon konkretu batzuetan edo ez dela sartzen. Beti pentsatu izan dut zorte txarra izan dugula kanonetan sartu ez garenok baina kanonetan sartu direnak ere puteatuta egon dira. Batzuen sexualitatea desagertu da eta beste batzuena hipersexualizatu. Gorputza hor dago beti. Nola ez dizu eragingo bertsotan ari zarenean? Bertsolari hori eraikitzen ari zara mundu guztiak argi uzten dizunean zerbait desberdina daukazula. Horrek eraikitzen zaitu eta momentu batean beldur batzuk sortzen dizkizu.

**A:** Eta horrek eramaten zaitu ezin transgreditura; egotea bada nahiko transgresio. Uxuek oso anekdota ona kontatzen du. Mendarora joan ginen bertsotan, uztaila zen, kriston beroa. Mendian, harri koxkor batean kantatu genuen. Uxue gona motzekin joan zen, haize pixka bat bazebilen. Oso ondo kantatu zuen berak. Hurrengo urtean galdetu nion: Uxue aurten ere elkarrekin Mendarora? Eta berak esan zidan: “ez, aurten ez didate deitu. Klaro, nire kuleroak ez zitzaizkien gustatu!” Ni ez nintzen kontziente non kantatu genuen, baina bera bai. Hor dago gorputza.

# Andoni Egaña

# De la Tierra a la Luna cantando versos

GORKA QUEVEDO



En la biblioteca de Zarautz faltan cuatro libros desde hace 40 años. Alguien los cogió en préstamo para estudiar y conocer el bertsolarismo. Y todavía siguen en su casa. Incluso hace años se lo confesó al entonces alcalde, que le contesto: "Tranquilo, ya están más que amortizados". De eso no hay duda. Quien los cogió fue Andoni Egaña Makazaga (Zarautz, 1961), el bertsolari que más txapelas ha ganado en el campeonato de bertsolaris de Euskal Herria.

Andoni Egaña fue estudiante de la primera promoción de la Ikastola de Zarautz. Con 14 años tuvo que estudiar el bachiller en castellano: las únicas Ikastolas para hacer bachiller estaban en Donostia, y no era fácil ir todos los días; también había una cuestión económica. Era septiembre de 1975, una época convulsa marcada por el fusilamiento de un vecino de Azken Portu, Juan Paredes Manot, Txiki, ejecutado junto a otras cuatro personas en el cementerio barcelonés de Cerdanyola del Vallés. "Hacíamos huelga todos los días", recuerda.

Tras terminar bachiller, Andoni Egaña decidió estudiar Filología Vasca. Fue cuando descubrió, –mejor dicho, redescubrió– el bertsolarismo. Xabier Amuriza ganó el campeonato de Euskal Herria. Entonces se dijo: 'Yo quiero hacer eso'.

"Cuando empecé a intentar hacer bertsos me di cuenta de que tenía más facilidad que el resto para medir las sílabas, para rimar... Luego no tuve tiempo para pararme a pensar. Desde que con 20 años hice mi primera plaza y gané el primer campeonato de jóvenes a la final del campeonato de Euskal Herria solo pasaron tres años y medio".

Es evidente que le ha ido bien."Lo suficiente para vivir de esto". La primera txapela en el campeonato de Euskal Herria la consiguió en 1993. Luego vinieron otras cuatro consecutivas –1997, 2001 y 2005–. "Toda una vida cantado bertsos. No se, pero desde 1993 hasta hoy habrán sido unas 4.000 plazas. Para 1989 ya estaba entre los favoritos para conseguir la txapela en el campeonato de Euskal Herria, y lograrla fue quitarme un peso de encima. Yo no quería dos, tres o cuatro txapelas, pero si quería quitarme ese peso de querer ser campeón. Y eso es hermoso".

Se quitó un peso cuando ganó la primera txapela, y otro cuando la ganó Maialen Lujanbio en 2009. "Me quité otro peso, pero diferente. Cuando iba por la calle solía escuchar: 'mira, el bertsolari'. '¡Cómo que el bertsolari; uno de ellos!', solía responder. No me gustaba nada; lo odiaba".

Egaña sigue cantando bertsos. "Unas 160 actuaciones al año. Este año se ha cumplido 50 años desde la llegada a la Luna. Con motivo de este aniversario leí la distancia que había entre la Tierra y la Luna; más o menos los kilómetros que le he hecho al coche de plaza en plaza por toda Euskal Herria".

# Onintza Enbeita
# De Muxika al mundo

G.Q.



Onintza Enbeita Maguregi (Muxika, 1981) no tuvo que coger libros de la biblioteca para estudiar y aprender sus primeros bertsos. Eso lo hacía en casa con su abuelo Balendin, ganador del primer campeonato de bertsolaris de Bizkaia, en 1958. “Aitite me enseñaba bertsos antiguos, y como siempre he tenido buena memoria me los aprendía y los cantaba según la ocasión, como si fuera un trofeo”.

Creció en un entorno muy marcado por el hecho de pertenecer al bando perdedor en la Guerra Civil. “En Gernika no se habla, pero cuando se reconstruyó, tras el bombardeo, las buenas casas se las quedaron unos, y los otros nos quedamos en la periferia. Nosotras crecimos así, sabiendo que estábamos en el bando de los perdedores, de los pobres, de los baserritarras. Pero esto también te lleva a superarte a ti misma. Nací en Muxika, y habrá quien diga aquello de ‘pueblo pequeño, infierno grande’, pero yo he visto el mundo desde Muxika y he salido a conquistarlo desde Muxika”.

Durante cuatro generaciones la de los Enbeita ha sido una de las sagas más importantes del bertsolarismo. Eso marcó también su personalidad. “Para mí el bertsolarismo ha sido un camino de comunicarme con aitite Balendin. De niña era un juego muy bonito, las rimas… Recuerdo que el verano en que murió aitite -yo tenía siete años- fuimos a fiestas a Bilbo. Cuando finalizó la actuación de bertsolaris en la Plaza Santiago subió al escenario y la gente empezó a aplaudir. Ahí descubrí que aitite hacía algo importante. Luego empecé en la bertso-eskola, sin pensarlo mucho, y en la juventud empezamos a juntarnos con Jon Lopategi varios jóvenes bertsolaris de Bizkaia, con los que descubrí una cuadrilla de amigos y amigas. Creo que hasta los 22-23 años no hice una elección consciente en plan: ‘¿qué quiero hacer con el bertsolarismo?’. Hasta ahí seguí por inercia; con esa edad es cuando decidí seguir adelante de modo consciente”.

Cantó por primera vez en fiestas de un barrio de Muxika, en 1988, pero pasaron años hasta que ella se definiera como bertsolari. “Esto tiene mucho que ver con el género. Todos nuestros referentes eran hombres, y en ese camino no nos veíamos lo suficientemente bertsolaris para cantar. Empecé a darme cuenta de que muchas de las cosas que nos pasaban eran por ser mujer y que había varios techos que romper… Era la sensación de estar en un sitio que no te correspondía. De todo esto me he dado cuenta a posteriori. Mientras sucede, sobrevives”.

En 2018, Onintza Enbeita fue la primera mujer en ganar el campeonato de Bizkaia, al igual que lo hizo aitite Balendin 60 años antes. Sin embargo, lo que más ilusión le hizo no fue ponerse la txapela, sino que le dieran la makila. “La makila significa el poder, y que pasara a manos de una mujer fue una sensación tremenda”.


AYUNTAMIENTOS
EUSKADI
BASQUE COUNTRY
Trajes
Balenciaga
Euskadi
alcalde Ereño
OPE
Bakio

**IratINK**

# La corrupción también chapotea en el Oasis Vasco

En este número de ALDA nos preguntamos (y cuatro periodistas responden) por qué el periodismo de investigación no destapa escándalos en Euskal Herria. Y es que haberlos... haylos.

**IVÁN GIMÉNEZ**

Entre los tópicos que se asignan a cada pueblo, al vasco le corresponde, entre otros, el de "la fidelidad a la palabra dada", la seriedad, la honradez... "Palabra de vasco", se dice, y se supone que todo el mundo sabe que eso se va a cumplir. Un vasco nunca engaña, por lo que parece. Con gran oportunismo, este tópico se ha aplicado también a la política, donde faltar a la palabra, en los tiempos que corren, es tan frecuente que nunca es noticia. Por el mismo camino, pero un paso más allá, se llega a la corrupción, lacra que supuestamente no contamina el oasis vasco. Aquí, la política es por lo general limpia y honrada... salvo excepciones. Pues no, en esto, Euskadi no es 'different'...

Mientras que en Navarra, desde el urralburismo hasta las dietas de Caja Navarra, la corrupción y su denuncia periodística (en ello el papel de Patxi Zamora es muy destacable) ha sido constante -y también un factor para propiciar cambios de gobierno-, en la CAPV la corrupción es una realidad soterrada, casi siempre fuera de foco, con poca o nula atención por lo medios de comunicación y solamente investigada por un puñado de outsiders del periodismo. Precisamente cuatro de estos periodistas -todos hombres, por cierto, lo que exige una reflexión sobre el papel que se reserva a las mujeres en las redacciones- fueron convocados a una mesa redonda el pasado 3 de octubre en Gasteiz por ADI Ekartea, la asociación alavesa que se preocupa de denunciar la corrupción política, y que encuadró esta cita en un ciclo de mesas redondas con profesoras de universidad y otras personas que han investigado este fenómeno desde la financiación de los partidos políticos hasta la legitimación social y el miedo a la denuncia.

Estos cuatro periodistas desgranan a continuación algunas características de este supuesto Oasis Vasco, donde la corrupción política también chapotea a sus anchas... Aunque no lo veamos.

# “Aquí, destapar la corrupción se ve como una afrenta al país”

**Iker Armentia.** Cadena Ser y eldiario.es



“Aquí no hay una tradición de periodismo de investigación tan grande como en otros países. En EEUU se aprobó la primera Ley de Transparencia en 1966, y aquí no hubo ninguna hasta 2003. En EEUU, por ejemplo, hay equipos de investigación en grandes diarios donde cinco o seis periodistas trabajan un tema, sin grandes presiones de tiempo, hasta que consiguen sacarlo. Aquí lo que hay son lobos solitarios. Tampoco hay prácticamente organizaciones sin ánimo de lucro que se dediquen a investigar y sufraguen el trabajo de periodistas de investigación”.

“Luego está la situación de las empresas de comunicación, que sufren una doble crisis, la económica y la del propio modelo informativo. Entonces se cumple ese principio del periodismo: cuánto más débil es un medio, más frágil es ante las presiones del poder político y económico, y menos les puede molestar. Hace unos años, había empresas informativas fuertes que podían resistir las presiones políticas, de anunciantes o de los bancos acreedores. Ahora, cada vez menos...”.

“En Euskadi hay otro añadido, quizá sociológico. A veces se habla de cierta conspiración mediática, pero lo cierto es que aquí carecemos de autocrítica: los vascos nos creemos tan *cojonudos* que destapar cualquier evidencia de corrupción se considera una afrenta contra el país. A pesar de todo, siempre se ha tratado la corrupción en los medios, y en los 80 y principios de los 90 se dio una pequeña edad de oro del periodismo de investigación. Hubo mucha efervescencia, y quizá ahora puede darse otra época parecida. Simplificando mucho, puede decirse que el periodismo también ha vivido su 15M, y han surgido nuevos medios que hacen cosas distintas, y están más cerca de la calle”.

> “Euskal herritarrok hain apartak garela uste dugu, ezen ustelkeria-frogaren bat agerian uztea gure herriaren aurkako erasotzat jotzen baita”.

“Cuando el periodista no se quiere mojar, se da paso a una falsa equidistancia: yo doy voz a las dos partes, y entonces mantengo un equilibrio y una neutralidad, pero si uno te dice que las personas vuelan, y las otras no, pues no vale limitarnos a dar las dos versiones. El periodista tiene que arriesgarse a discernir lo que ha pasado de verdad. Sin embargo, muchas veces no vamos más allá de contar ambas versiones”.

“Creo que era el periodista José Martí Gómez quien decía en un libro que “cada mesa debe ser un Vietnam”. Es decir, como periodista, yo voy a hacer todo lo posible para llegar al final: que no sea por mí que el tema no salga adelante. Luego, a la noticia otros le darán más o menos relevancia, pero yo tengo esa obligación. Y luego está la autocensura, que va relacionado con que yo me puedo encontrar en mi entorno social o local con alguien de quien he contado algo poco agradable. O sacar una noticia sobre un anunciante importante de mi cadena de radio... Por el contrario, si yo escribo sobre un ministro que está allá lejos, en Madrid, eso no me va a afectar en mi vida diaria”.




“Por otra parte, están los medios públicos, que trabajan bajo control político. Y eso lo vemos muy claro aquí, en Euskadi”.

# “Los medios vascos están poco interesados en investigar”

**Iker Rioja,** autor de los libros ‘El padrino. Anatomía del caso De Miguel’ y ‘Dentro de lo normal’, sobre la corrupción en Euskadi)



“Yo presenté el borrador de mi último libro a una editorial importante de Barcelona, y me contestaron que no era un trabajo publicable porque los protagonistas no eran famosos. Y yo pensé que eso era un círculo vicioso: si no puedo publicar casos de corrupción de nuestro microclima, como lo llama el lehendakari, pues nunca serán conocidos…Por ejemplo, aquí casi todo el mundo sabe algo, por poco que sea, del caso de los trajes de Francisco Camps (ex presidente de la Comunitat Valenciana). Sin embargo, en Euskadi ha habido un caso bastante más grave, el de los trajes de Balenciaga, donde un alcalde del PNV se dedicó a saquear la colección. Se llegó a comentar que regalaba los guantes de la colección a las esposas de los concejales del PNV de su pueblo, contrató a su pareja como arquitecto (y no tenía licencia para ello), e hizo bastantes destrozos en el museo”.

> “Valentziako edo Madrilgo ustelkeria-kasuak ezagunagoak dira hemen, bertakoak baino”.




*En la imagen, concentración contra la corrupción convocada en Gasteiz por ADI Elkartea.*

“También es muy conocida la foto de Camps y Rita Barberá con un jefazo de la Fórmula 1, en un descapotable. Esa imagen es un icono de la corrupción en Valencia, pero yo os invitó a que visitéis, aquí cerca, al Parque Tecnológico de Miñano, donde hay una mole enorme que se llamaba Epsilon Euskadi, y que se tragó 48 millones de euros. Alguien pensó que aquí en Euskadi nos merecíamos un equipo de Fórmula 1. Cito estos ejemplos para que nos demos cuenta de que nuestros propios casos de corrupción vascos son menos conocidos aquí que los casos valencianos o madrileños”.

“Al hilo del Caso De Miguel publicamos que el entonces director de Juventud del Gobierno Vasco (Xabier Sánchez Robles) había falsificado los sellos del Gobierno Vasco, de una manera tan burda que puso como fecha el 29 de febrero de un año que no era bisiesto… Pues bien, la esposa de este señor ha sido diputada en Madrid por el PNV en esta corta legislatura (se refiere a Josune Gorospe). Con todo esto, vuelvo al caso de Miguel, que va a cumplir 10 años en los tribunales y todavía no tenemos final. Ni siquiera se sabe cuándo va a llegar la sentencia, pero yo apostaría a que saldrá después de las elecciones”.

“Es innegable que los medios vascos están mucho menos interesados en investigar la corrupción. Este año ha habido varios, especialmente en Gipuzkoa, pero la cobertura de los medios en Euskadi es en negativo, por decirlo así: es decir, solo se publica que el acusado niega los hechos. Muy poco más”.

# “Boteredunak ikertzeak bere ondorioak dakartza Euskadin”

**Ahoztar Zelaieta**k hainbat liburu idatzi ditu: “Jóvenes burukides bizkainos. Clientelismo y ‘fontanería’ en el PNV”; “La casta vasca. Mafias y gobierno vasco en la última década”; “Kutxabank. El saqueo dae El País Vasco”; “Evasores, morosos y millonarios vascos”; “Euskadi SA: el gen corrupto del PNV”; eta ”La trama del 4%. Las comisiones del Caso De Miguel”.



Pedro J. Ramírez etorri ohi zuen Eginera, eta solasean aritzen zen Pepe Reirekin. Ideologia desberdinekoak izan arren, informazioa elkarri trukatzen zioten. Eta harremanetan geunden, halaber, Interviú-ko kazetari ikerlariekin, lehenago Diario 16-tik, Tele 5-tik eta Antena 3-tik ibilitakoekin. Denok genuen helburu bat komunean: botereak ezkutuan gordetzen zituen kontuak argitara ateratzea. Gure artean aldeak, bekaizkeriak eta lehiakortasunak izan arren, lankidetza ere bazegoen. Gogoan dut GAL eta ustelkeria PSOEn, 90eko hamarkadan. Datuak elkarri trukatzen genizkion; zeren, ororen gainetik, jendeak informazio hori jasotzeko eskubidea zegoen”.

“Orain kazetaritza deklaratibo gehiegi dago, ez doaz dokumentazio bila, ez dituzte gertaerak ikertzen, batzuen eta besteen adierazpenak egiaztatzeko. Batek dioena orrialde bat betetzeko erabiltzen da, eta besteak dioena hurrengo orrialderako. Horrela dabiltza euskal hedabide gehien-gehienak. Kosturik txikieneko kazetaritza da, arazorik ematen ez duena, ez etikaren aldetik, ez moralaren aldetik”.

“Estatu Espainiarrean, osotasunean, ezagutzen diren kasuak benetan daudenen %15 izaten dira, akusatuak oso ezagunak direlako, edo fiskala izar bat delako. Baina probintzietan gertatzen den ustelkeriaren %85 ez da ezaguna jende gehienarentzat. Azaleko orrietan agertu ez, baina barruko orrialdeetan agertzen diren kasu txikiak bilduz gero –beren nagusiekin eta are beren hedabideko administrazio-kontseiluarekin borrokatzen duten kazetari engaiatu horiek ateratzen dituztenak–, Euskadiko bestelako mapa bat agertuko zaigu: prebarikazioarena eta askotariko delituena. Eta jendea askoz hobeto jabetuko litzateke gertatzen ari denaz”.

“Herrialde hau oso txikia da, eta denok gara elkarren ezagunak. Euskadin boteredunak ikertzeak berehalako ondorioak ekar ditzake norberaren eremura. Hori eramangaitza da. Hiri inpertsonalagoetan ausardia handiagoz jokatu daiteke, baina hemen, Gasteizen...”

“Ni Egin egunkariko ikerkuntza-taldean hasi nintzen lanean, Ertzaintzak gure artxiboak erregistratu eta hilabete batzuk geroago. Orduko hartan EAJ/PNVren kontuei buruzko argibideak ateratzen ari ziren. Aurrerago, CESIDek Herri Batasunari egindako legez kontrako entzunaldiei buruzko informazioa atera zen. Handik egun batzuetara Mayor Orejak Egin ixtea agindu zuen, eta orduan amaitu zen nire etapa Eginen. Nire hurrengo lana Ardi Beltza aldizkarian izan zen, non PPren eta narkotrafikoaren arteko harremanak argitaratu genituen, eta *Policía Patriótica*ren kasuari buruzko beste informazio batzuk ere eman genituen jakitera, eta Garzonek argitalpena itxi zigun”.

“Herritarrek uste dute kazetariak direla informazioaren gerlari garaitezinak, eta ez da horrela. Kazetariak ez lirateke ezer izango informazio-iturririk gabe. Hemen, Gasteizen, badago elkarte bat, Adi izenekoa, eta De Miguel auziko salatzailea babesteko manifestazio bat antolatu zuen, ba, 14 lagun baino ez ginen bildu”.

“Hay un exceso de periodismo declarativo, sin contrastar lo que declaran unos y otros, buscando documentación o yendo a los hechos. Es un periodismo de coste mínimo y no te crea problemas ni éticos ni morales”.

# “Cuando publicamos sobre corrupción, los juzgados somos nosotros”

**David S. Olabarri.** El Correo.



“Uno de los problemas en los medios generalistas es que nos falta profundizar en un tema concreto porque tenemos que atender otras noticias más recientes. Además, en Euskadi falta competencia entre medios, y en parte por eso, las empresas no apuestan por el periodismo de investigación”.

“De los casos que he llevado, voy a citar el de Alonsotegi, que empezó como un conflicto entre el diputado general de Bizkaia, Iñaki Bilbao, y un conocido contructor vizcaíno. Presentaron un solar que era un vertedero como una “fábrica de casas” que iba a solucionar el problema de la vivienda en la zona. Fue un fiasco monumental, obras paradas, 40 millones de euros que no se declararon…

> Prebarikazioa ustelkeria da, zeren botereaz modu bidegabean baliatzen baitira batzuei on eta beste batzuei kalte egiteko.

En Euskadi hay muchísimos casos de pequeña corrupción. Hay quien defiende que la prevaricación no lo es. Demostrar un delito de prevaricación es muy difícil y no tiene pena de cárcel, pero es corrupción desde el momento que se utiliza el poder para beneficiar ilegítimamente a unas personas y perjudicar a otras.”.

“Hace varios años, publiqué una historia sobre el alcalde de Ereño (Bizkaia). Él tenía su sueldo de alcalde, pero se jubiló y no podía seguir cobrándolo. Entonces se puso dietas de 1.000 euros por plenos de 30 minutos. Nos denunció, presionaron mucho a nuestra fuente, que era otro vecino del pueblo… “En otra ocasión, publiqué la historia de un ertzaina que montó una empresa de seguridad en Brasil en vísperas del mundial. Al destaparlo, el ertzaina denunció al Gobierno Vasco, supuestamente por haber filtrado la noticia. Tras el juicio me quedó la sensación de que el juzgado era yo por hacer mi trabajo. La jueza estaba enfadada conmigo, como dando a entender que yo no tenía que haber publicado aquello”.

## Ikerketa-kazetaritza, gizonen kontua ote?

**Erreportai hau egiteko, edo aipatutako Gasteizko jardunaldiak antolatzerakoan, oso zaila suertatzen da emakume kazetariak aurkeztea. Euskal komunikabideen errepasoa eginez (batez ere, idatzizkoak), proportzioa oso desorekatua da. Ikerketa-kazetaritza gizonen kontua da?**

**Berez, ez du zertan izan behar, baina egoera honen arrazoiak bilatze aldera, bi pasadizo burura etorri zaizkigu. Behin, euskal komunikabide batekiko bileran (nahiko ezkertiarra, bide batez esanda), 11 kazetari agertu ziren, denak Ekonomia edo Politika sailekoak, eta denak… gizonak ziren. Talde hura ikusi arte, haiek ez ziren konturatu zein den euren komunikabidearen egoeraz.**

**Agian, emakume kazetariak zokoratuak izaten dira sail jakin batzuetara: kultura, gizarte gaiak (arinak, ez oso konprometituak) eta azken boladan, kirolak ere. Agian, komunikabideen nagusiek (eta kazetari askok ere) uste dute benetako gai sakonei buruz idazteko gizonak behar dituztela, eta ez emakume ‘kaskarinak’.**

**Bigarren pasadizoa are larriagoa da. Beste euskal komunikabide batek (aurrekoa baino are ezkertiarragoa) kazetari berriak kontratatzeko iragarkia jarri zuten, emakumeak izan behar zirela ohartuz: baldintza hori jartzerakoan, oso agerian geratu zen zer egoera larrian zegoen sexuen arteko lan-banaketaren inguruan.**

**Ba al dago zuzentzeko biderik? Noiz eta nola ugarituko dira emakumeen sinadurak ustelkeria, politika eta ekonomiari buruzko informazioetan?**

# Ikusi, irakurri, entzun!

GABRIEL ZEBERIO

## FILMEA



### Sorry. We missed you

***Zuzendaria: Ken Loach.***

Zinemagile britainiarra oso ezaguna da, filme ugari eta arrakasta handikoak egin dituena, baina famak ez du diru erraza bilatzera eraman, ez eta jende xehearen kezkak alde batera uztera ere. Beti agertu du joera, hala politikan, nola auzi sozialean, ahulenen alde bustitzeko. *Kes*, *Riff-raff, Raining stones* (Lloviendo piedras), *Bread and roses* (Pan y rosas), *The wind that shakes the barley* (El viento que agita la cebada), *Hidden agenda* (Agenda oculta), *Ladybird ladybird*, *I, Daniel Blake*, nahiz aurtengo Donostiako Zinemaldian publikoaren saria irabazi zuen *Sorry we missed you*. Loachek laborismoaren aldeko jarrera publikoa du; ez da kasualitatea bere azken dokumentala *The spirit of '45* izatea, besteak beste Erresuma Batuan NHS osasun publiko sistema ekarri zuen ongizate-estatuaren gorazarrea. Azkenik, euskal langileok badugu Loachi zer eskertua: Zahar etxeetako langileengana prentsaren aurrean babesa ematera jo zuen zinemagile bakarretakoa izateaz gainera, sari banaketan irakurri zen bere mezuak berariaz aipatzen zituen grebalariak eta hauek antolatzen dituen sindikatua. Bejondeiola!

## LIBURUA




### El ferrocarril subterráneo. Colson Whitehead

**Whitehead**. *Literatura Random House, 2017 (es); Le livre de poche Lgf, 2019 (fr).*

Galardonada en 2017 con el Premio Pulitzer y el National Book Award, la novela *El ferrocarril subterráneo* nos cuenta, combinando elementos históricos y fantásticos, la odisea que vive Cora, una joven esclava, para huir de una plantación de algodón de Georgia. El ferrocarril subterráneo era, en realidad, una organización clandestina que llevaba, de sur a norte, a la libertad a los hombres y mujeres que huían del infierno esclavista. Aunque la novela se sitúa en el siglo XIX, aún hoy hay quien reivindica los valores de la Confederación esclavista. "América es un engaño, el mayor de todos. La raza blanca cree que es su derecho tomar la tierra. Matar a indios. Hacer la guerra. Esclavizar a sus hermanos. Esta nación no debería existir si hubiese justicia en el mundo, porque sus fundamentos son el asesinato, el robo y la crueldad". Es una obra de una prosa directa, "afiladísima", que por momentos estremece y deja mal cuerpo, pero imprescindible para comprender la realidad actual de la sociedad estadounidense.

## DISKA




### Gorraizea

***Xabier Montoia. Gaztelupeko Hotsak, 2017.***

Xabier Montoiak ibilbide luzea egin du euskal kulturan; hamaika liburu argitaratua da (azkena, *Hitzontziak* nobela), eta musikan ere aspaldidanik ari da. Gaur Gorraizea cd-az mintzatuko gara; ez da berria, duela bi urte plazaratu baitzuen. M-ak taldean ezagutu genueneko rocka eta soinu elektrikotik aldenduta, oraingo hau lan guztiz akustikoa dugu, Ibon Rodriguezen pianoa oinarri dela, harizko laukote batek jantzen du, besteak beste kantuan laguntzen duen Itziar Lertxundiren txeloak. Diskoak biltzen dituen 10 kantetan Montoiaren ahots indartsuak batik bat bikote harremanaren gorabeherak kantatzen dizkigu (Behin, Galderak, Eskuragaitza... are Ekologista baten galderak izenekoa), gaztaroko nostalgia (Behin, Oroimenaren balsa), baina baita Réau espetxeko kontuak edota Lo ezinak jotakoaren seaska kanta ere. Alez ale lasai dastatzeko lana. A

# Soldata arrakalan harrapatuta

IVÁN GIMÉNEZ

Edozein astegun batean, goizeko 11.30etan, enpresa handi baten bulegoan nago. Emakumea naiz.

Une jakin batean, inpentsan, nire mahaitik begirada altxatu dut eta ingurura so geratu naiz. Ez naiz ezertan pentsatzen ari, baina bat-batean, kafea hartzen genuen bitartean entzun dudan erantzun bat etorri zait burura: "Hemen postu guztietan gizonek eta emakumeek berdin kobratzen dute; ez badazu sinisten, zoaz soldaten tauletara, eta bertan ikusiko duzu; ez dago sexu-diskriminaziorik. Kontua da emakumeek ez duzuela aurrerapausorik ematen enpresaren barruko promoziorako, ezetz esatera ohitura duzuelako".

Enpresa honetan, 1.000 enplegatu gaude (datu errealak dira, benetako enpresa batetik hartutakoak), eta %30 emakumeak gara. Hala ere, 33 zuzendari daude, denak lau izan ezik (%12). Hori bai, administratiboen artean -nire kasua, soldaten tauletako beheko aldean-, %94a emakumeak gara. Eta hori dena, "ezetz esatera ohitura dugulako?".

Ez da muturreko egoera bat, nonbait irakurri dudanez gure ondoko enpresan zuzendari emakumerik ez dagoelako. Tira, pozik egon beharko ginateke, edo behintzat konforme…

Ni naiz, hain justu, ezetz esan zuen horietariko bat. Eskaintza, nolabait deitzearren, haurdun geratu nintzenean egin zidaten: jardunaldia murrizteko asmorik ote nuen galdera egin ondoren, nire patua erabakita zegoen. Gainera, eszedentzia hartu behar izan nuen. Eskerrak lanpostua ez nuela galdu.

Soldata gutxiago, etxeko lanen ardurarik handiena nire bizkarrean, kotizazio gutxi eta orain, bikotekideengandik banatzeko prozesuan nago…

Akaso promoziorako baietz esateko aukerarik daukat?



Promozioak zer dakarren badakit: ordutegi malgua (enpreseraren mesedetan beti), lan-bidaiak eta etxetik kanpo egoteko beharra… Nola moldatu nire bizitza? Nola ihes egin soldata-taularen beheko aldetik?

Soldata arrakala horretan erortzeko modua anitz dago. Amari ere gertatu zitzaion, diskriminazioa oso ongi egokitzen da garai ezberdinetan: senarraren soldata eta ordutegiaren menpe, garbiketa lanetan hasi zen 40 urte beteta, lanaldi murriztuan eta zatituan (goizez eta arratsaldez), seme-alabok koskortuta geundenean. Eraikin publikoak garbitzen zituen, beste emakume askok bezala, eta egunen batean sindikatuak datu bat erakutsi zien: herri bereko kaleak garbitzen zituzten gizonek urtean 6.000 euro gehiago kobratzen zuten. Hura (ordukoa eta gaurkoa) bai arrakala! Gainera, ama alargun geratu zenean, orduan pairatu zituen kotizazio epe motza izatearen ondorioak…

Nire alabak beste motatako soldata arrakalarekin egin du topo, Unibertsatetik aterata eta seme-alabak izateko adinean. Lan-elkarrizketetan betiko galderak: familia izateko asmorik? Bidaiatzeko prestutasuna? Ordutegi malgurik bai?

Soldata arrakalaren gakoa ez dugu teorian aurkeztuko, eguneroko bizitzan baino. Harrapatuta gaituzte, aska gaitezen gu, aska ditzagun biharko emakumeak! Atzoko emakumeen omenez…

# LAN-PENTSIO-BIZITZA
# DUINA
## SOBERANÍA PARA EL CAMBIO SOCIAL

URTARRILA
# U30 GREBA OROKORRA
ENERO

# HUELGA GENERAL



carta de los derechos sociales
euskal herriko eskubide sozialen karta

**ELA | LAB | STEILAS | ESK | HIRU | ETXALDE**

Aldizkari hau papera eta prozedura jasangarriekin egin da / Esta revista se elabora con papel y procedimientos sostenibles

PEFC PEFC/10-31-1120

Frankeo itundua / Franqueo concertado
nº 08/129 Zk